

hh
hik hasi

Xabier Aierdi immigrazioaz
Urriak 12, Alzaga zabalik
Gorputz-hezkuntza neurozientziatik
Estresa eta antsietatea
Gurasoekin bilerak
Euskararen ginkana
Kattalin Miner

212



EBALUAZIOA BIRPENTSATUZ

IRUDIMENA PIZTEN DUTEN ISTORIOAK

8-12

URTE

LOAREN INBASIO ISILA

Ana Jaka - Bruno Hidalgo

Ukuzen eskolara irakatsle berri bat etorri da, eta gauzak aldatu egin dira.



UDA BAT SENEGALEN

Liz Gallategi - Susanna Marin

Garazik eta izarik uda osoa Senegalen pasatuko dute.



ERRALDOIAK

Xabier Olaso - Enrique Morente

Erraldoi da aita, Maritantal da ama, eta Pabzikankailu semea, eta erraldoen familia osozren dute.



PORT LAJOYEKO SORGINA

Jorge Barthelemy - Paul Cahillan

17 urteko neska euskaldun bat Kanadako mikmak indioen buruzagiaren semearekin ezkondu zeneko kontaira.



AURKIBIDEA

GAIA / 10

EBALUAZIOA BIRPENTSATUZ

Ebaluazioa ulertzeko moduan ikuspegi berri bat proposatzeko "Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa" izeneko lana prestatu dute Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea irakasleek. Ikaslea ebaluatzen duen paradigmatik testuingurua ebaluatuko duen paradigmara nola igaro aztertzen dute bertan.

ELKARRIZKETA / 16

XABIER AIERDI

Eskolak immigrazioaren argazki bat erakusten du, eta, ondorioz, irakasleek beste edozein sektoretako profesionalak baino gertuago dute immigrazioa. Migrazio-fenomenoak ulertzeko pedagogia-lana egiteko eskatu dio *hik hasi*-k soziologoari. Optimista da: "Egunerokotasunean gatazka eta diskriminazioa ez dira hain handiak".

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-10-14).

Kopurua: 4.000 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA
Ez da paradisurik

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA
Ebaluazioa birpentsatuz

16 ELKARRIZKETA
XABIER AIERDI
"Beldurra ematen digu immigrazioak, baina immigrariak ez"

24 ESPERIENTZIAK
Urriak 12,
Altzaga zabalik

26 EKARPENAK 1
Jarduera fisikoa,
hezkuntzaren motorra

32 EKARPENAK 2
Estresa eta antsietatea

36 GALDEIDAZU
LARRAITZ
MENDIZABAL HUITZI
Familiekin bilerak

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA
Euskararen Ginkana

42 ATZEKO ATETIK
Kattalin Miner



Ez da paradisurik

editoriala

KONTUA EZ DA ESKOLARI IKASLEEN ARTEAN ELKARBIZITZA ESKATZEA, BAINA BAI, BEDEREN AHALIK ETA KOEXISTENTZIA ATSEGINENA BERMATZEA. HELBURU EGINGARRIAK IPINTZEAK ARNASA EMATEN DU, IGERI EGITEKO.



Kontua ez da eskolari gehiago eskatzea. Kontua ez da eskolari paradisia izan dadin eskatzea. Paradisia, non ez den gatazkarik izango, non denak adiskide izango garen, ikasle eta irakasle, bertako eta kanpotik etorritako. Eskola izan daiteke —eta da—, atrakzio-parke bat bezain dibertigarri; baina eskola izan daiteke —eta da— gudaleku. Bizitza bera bezalaxe. Eta bizitza gatazkatsua da. Bada igerian egin behar da paradisurik ez delako. Eta igerian egiteko jakin egin behar da, eta jakin nora egin behar den igeri.

Immigrazioari buruzko iritzi nagusia txarra den gizarte batean, gurean, ezin zaio eskolari ikasleen arteko elkarbizitzaren bermerik eskatu. Xabier Aierdi immigrazio-gaietan aditua den soziologoak azaldu dio *hik hasi*-ri immigrazio-prozesuaren hasieran gaudela, epe luzera begiratu behar dela, eta elkarbizitza helburu goren bada ere koexistenzia dela lehen helburua. Eta ez da gutxi. “Bitartean bizi gara, hobeto edo txarrago”. Denborak egingo du berea. Kontua ez da, beraz, eskolari ikasleen artean elkarbizitza eskatzea, baina bai, bederen ahalik eta koexistenzia atseginena bermatzea. Helburu egingarriak ipintzeak, arnasa ematen du, igeri egiteko.

Eta igeri nora, jakin behar da. Korrontearen kontra egingo baitu igeri eskolak. Korronteak, kliseak, estereotipoak, zurrumuruak immigrazioaren kontrakoak baitira. Eta jakiteko norantza egin igeri, sentsibilizazioa beharrezkoa da, korronteak bestela arrisku-eremuetara eramane gaitzake, immigrazioaren kontrako

ideietatik immigranteen kontrako jarreretara. Eta oraingoan, oro har, ez da halakorik nagusi, soziologoak argitu duenez, gizarte hau uste okerrekin zuzen ari baita jokatzeko. Paradoxikoa. Zorionekoa.

Sentsibilizazioa eta tresnak, programak, baliabideak behar ditu eskolak immigrazioa kudeatzeko, denik eta mugimendu konplexu-erretako bat baita.

Herrialde hartzaileak kontrolatzen duen fluxua, noiz, zein, zenbat, nora, nolakoa. Herrialde hartzaileak, beraz, ardura duen fenomeno da immigrazioa. Baina hala, fenomeno gisa gustatzen ez zaiona. Paradoxikoa. Haatik, fenomeno pertsonetara ekarririk, hobesten egin du gure gizarteak immigrantea, soziologoak argitu digunez. Eta pertsonak daude gelan, asko eta asko kurtsoaren erdian etorriak, asko eta asko eskolako hizkuntza ezagutzen ez dutenak, asko eta asko etxean baliabide ekonomiko gutxi dutenak, asko eta asko fluxuan beste norabait joango direnak. Konplexua da migrazioa, zaila, eta ezin zaio eskatu eskolari dena lehenbailehen konpontzeko. Ezin zaio irakasleari paradisurik eskatu. Gogoia eskatzen dio soziologoak.

Orain, eskolak badu ardura —hezkuntza sistemak eta baita irakasle bakoitzak ere—. Ardura ahalik eta erantzun egokiena eman behar zaie-lako gelan dauden ikasle guztiei, eta orobat etorkinei. Ardura itzela, bada. Optimismoak ez gaitzala gehiegi lasaitu. Bertan goxo ito ez gaitzen.

“Filosofiaren galderan eta zientzien erantzunean trebatuko diren gizakiak behar ditugu”

Enrique Zuazua



SELEKTIBITATEAREN ANTZEKO PROBA JARRI NAHI DUTE BATXILERGOKO ERREBALIDATZAT

Diferentzia handirik gabekoak, norabide berekoak izango dira orain arteko selektibitatea eta aurten abian jartzekoa duten Batxilergoko errebalida. Nor bere erara, baina mezu hori ematen ari dira ikastetxeei Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak. Iruñeko gobernuak gutun bat bidali du eskoletara eta azaldu die NUPekin ari dela proba taxutzen, eta “ahalik eta aldaketarik txikienak” eragiten saiatuko direla. Jaurlaritzak jakinarazi du EHUrekin ari dela azterketa presatzen, eta oraingo probaren “antza” izango duela. Probarako irizpideak argitzeko dauzka oraindik Espainiako Hezkuntza Ministerioak.

IKASLE ETORKINEN SEGREGAZIOA SALATU DUTE GASTEIZKO HAINBAT ELKARTEK

Migratzaileen seme-alabek Gasteizko eskola publikoetan pairatzen duten “bazterketa eta segregazioa” bukatzeko urratsak eskatu dizkiote hainbat guraso elkartek, sindikatuk eta immigranteen elkartek Eusko Jaurlaritzari. Eragile horiek guztiek elkarretaratzea egin zuten urri hasieran Hezkuntza Sailaren ordezkariaren aurrean, etorkinak itundun ikastetxeetatik baztertzen dituztela salatzen.

HEGO EUSKAL HERRIKO ERAKUNDEAK LOMCE EZARTZEN ARI DIRELA SALATZEKO PROTESTAK EGIN DITUZTE

Euskal Herrian adostutako hezkuntza eredia eskatzeko eta euskal eskoletan LOMCE ezartzen ari direla salatzen mobilizazioak egin ziren urriaren 26an, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuek eta EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak deituta. Goizean Hego Euskal Herriko ikastetxeetan ordubeteko lanuzteak izan ziren eta arratsaldean manifestazio jendetsuak egin ziren lau hiriburuetan. Protesta eguna Espainiako Ikasleen Sindikatuaren deialdiaren harira antolatu zen —Espainian, egun osoko greba egin zuten unibertsitatekanpoko hezkuntzan—. Ikastolen Elkarteak, LABek, Ikasle Abertzaleek eta Sortzen-ek ez zuten bat egin deialdiarekin.

Goizeko lanuzteak eta arratsaldeko manifestazioak izan ziren urriaren 26ko protesta ekintza nagusiak, baina ekitaldi gehiago ere izan ziren. Esate baterako, ELAK eta Steilasek elkarretaratzeak egin zituzten Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean, eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren parean, Iruñean. Ikasleen sindikatuak deituta, berriz, goizean ikasle anitz elkartu ziren lau hiriburuetan egindako manifestazioetan, lelo nagusi batekin: *Kanpora errebalida frankistak*. Iruñean, manifestazioa egin ahal izateko, ikasleek arazoak izan zituzten Espainiako Poliziarekin eta Foruzaingoarekin, baina ez zen istilurik sortu. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak berri agentziei adierazi zenez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan irakasleen %8k egin zuten goizeko lanuztea.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

PAI-REN 'INPOSIZIOA' BUKATUTZAT EMAN DU MENDOZAK

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du aurrerantzean PAI ingelesez ikasteko programarekin zer egin nahi duen, eta ez Hezkuntza Departamentuak. Jose Luis Mendoza Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariaren esanetan, PAI programa "ez da inposizio bat izan behar; baizik eta ikastetxeen eskakizunei erantzun behar die".

Programan sartu edo jarraitu erabakitzeaz gain, ikastetxeek programatik ateratzeko aukera ere izango dute. PAI programatik ateratzeko prozesua "mailaz maila" egin beharko da Mendozaren hitzetan, ikasleei "kalterik" eragin ez diezaien. Programa egoki bat sortzeko, ikastetxe bakoitzaren "autonomia sustatu" behar dela irizten du kontseilariak, ikastetxe bakoitzeko errealitatea diferentia delako hizkuntza, gizarte eta hezkuntza aldetik.



Euskal Harriko
ONGizatearen GIDA
Hazi Hezi

Hazi Hezi

aldizkariak haurren osasunean onura eragiten duten zerbitzu kualifikatuak

ONGizatearen GIDA

berrian jasoko ditu. Bertan agertu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Harremana: gida@hikhasi.eus



HEZKUNTZAREN MUSEOA IREKI DUTE DONOSTIAN, CAMPUSA ERAIKINEAN ETA ATEAK ZABALIK DITU BISITARIANTZAT

Urriaren 24an inauguratu zen Donostiako Campusa eraikinean dagoen Hezkuntzaren Museoa (Manuel Larramendi pasealekua, 2) eta harrezkero atea zabalik ditu bisitarientzat. Euskal Herriko Unibertsitateak buruturiko egitasmoa da eta helburu nagusia da Euskal Herriko Hezkuntzaren memoria historikoa berreskuratzea, zaintzea eta ezagutaraztea. Gaur egungo museo pedagogikoen ohiko erabilerez eta helburuez gain (historia eta hezkuntza ondarea katalogatzea eta zaintzea), ondare horren ikerketa eta erabilera didaktikoa ere izango ditu xede. Une honetan lau gune ditu ikusgai museoak: 50-60. eta 70-80. hamarkadetako gelak; euskararen mundua eta hezkuntza; irakaskuntzak eta ikaskuntzak; eta dokumentazio gelak.



ERRESPETUZKO KOMUNIKAZIOAREN INGURUKO IKASTAROA EMANGO DU NEREA MENDIZABALEK ORION

Azaroaren 5ean hasita, hilean behin, errespetuzko komunikazioari buruzko ikastaroa emango du Nerea Mendizabal psikopedagogoak Orioko Haur-Eskolan. Harremanak zaintzeko interesa duen edonorentzat da egokia, erlazio mota guztiak lantzeko aukera izango baita bertan: familiakoak, bikotekoak, lagun artekoak, eskolakoak, lanekoak... Ikastaroan teoria eta praktika uztartuko dira, bertan landutakoa eguneroko bizitzan esperimendu ahal izateko. Ikastaroa 150 € kostatzen da eta informazio gehiagorako info@hartueman.com helbidera idatzi behar da.

ABIAN DA ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2016-2017

Dagoeneko martxan da Elhuyar Zientzia Azoka, eta bidelagun berriekin abiatu du aurtengo ekitaldia Elhuyarrek. 12-18 urteko gazteek garatutako proiektu zientifiko eta teknologikoen azoka da Zientzia Azoka. Ekimenak eragiten duen bizipen-ibilbidearen bidez, Elhuyarrek gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko zaletasuna eta hurbiltasuna lantzen du, baita bertan egiten den ikerketa eta haren protagonistak gazteei hurbildu ere. Elhuyarren eskutik, ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik bizitzeko aukera dute gazteek, eta, bidean, ikertzaile profesionalen laguntza jasotzen dute, Elhuyarrek UPV/EHUrekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Deustotechekin eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin dituen hitzarmenei esker.

Halaber, ekimenak garrantzia handia ematen dio gazteek egindako lana gizarteratzeari, eta gurasoen, irakasleen eta lagunaren parte-hartzeari. Helburu horrekin, bada, ibilbidearen amaieran Zientzia Azoka ospatzen da, Bilboko Plaza Barrian. 2017koa, maiatzaren 6an izango da.



HIZPIDE IZANGO DA

ARRETA GOIZTIARRA LANDUKO DA AZAROAREN 4AN BILBON, ETA 5EAN DONOSTIAN EGINGO DIREN SAIOETAN



Urtero bezala, Hik Hasik jardunaldiak antolatu ditu udazkenerako, 0-6 urte arteko haurrekin aritzen diren profesionaleri zuzenduta. Arreta goiztiarra izango da azaroaren 4an Bilbon eta 5ean Donostian emango diren ikastaroetan landuko den gai nagusia. 0-6 tartean haurrei eman beharreko arretaz mintzatzeaz gain, EAEn arreta goiztiarraren eremua antolatzeko atera berri den dekretua aztertuko da eta Kataluniako eredia ezagutu ahalko da.

Jardunaldiak hasteko, Xabier Tapia psikologo klinikoak *Arreta Goiztiarra: argi-ilunak!* izeneko hitzaldia emango du. Ondoren, *Arreta goiztiarra eta sarea: eskolan egiten den lan komunitariotik begirada bat* izenburupean, Anna Luna Kataluniako psikomotrizista eta prebentzioan aditua mintzatuko da. Eta amaitzeko, Alvaro Beñaranek, pedagogo terapeutak eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakasleak, ondoko gaia jorratuko du: *Arreta goiztiarra eta eskola: benetako arreta izateko kontuan har ditzakegun gauza batzuk*. Bukaeran, hiru hizlariekin mahai-ingurua egingo da eta galderak egiteko eta eztabaidarako tartea izango da.

Bilboko saioa EHUren Bizkaia aretoan izango da 9:00etatik 14:00etara; Donostiakoa, berriz, EHUren Barriola eraikinean 9:00etatik 18:00etara. Donostiako kasuan, arratsaldean, Kataluniako eskola bateko esperientzia ezagutzeko aukera izango da, Rella Cdiap zentroko Pilar Cresporen eskutik.

Izen-ematea irekita dago eta www.hikhasi.eus webgunean egin daiteke. Edozein zalantza izanez gero edo informazio gehiagorako, berriz, idatzi hikhasi@hikhasi.eus helbidera edota deitu 943 371408 telefono zenbakira.

FINLANDIARA HEZKUNTZA-BIDAIA ANTOLATUKO DU HIK HASIK 2017KO UDABERRIAN

2017ko apirilaren 17ko astean, Finlandiako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia pedagogikoa antolatuko du Hik Hasik. Finlandiako hezkuntza-marko orokorraren berri jasotzeaz gain, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako hiruzpalau zentro berritzaile ikusteko eta bertako irakasleekin egoteko aukera izango da. Horrez gain, unibertsitatea ere bisitatu da, irakasleen formazioa nolakoa den ezagutzeko. Xehetasun guztien berri abenduaren hasieran emango da, eta izena emateko epea ere orduan irekiko da. Plazak mugatutik dira eta *Hik Hasi* aldizkariko harpidedunek izango dute lehentasuna.

ANGELICA OLVERA DONOSTIAN IZANGO DA AZAROAREN 3AN ETA 17AN

“Eskola eta familiaren arteko zubiak indartuz” izeneko hitzaldia emateko, pedagogia sistemikoaren sortzaile Angelica Olvera Donostian izango da azaroaren 3an eta 17an 17:30etik 21:00etara Iñaki Arana Sistemak antolatuta. Saio bakoitza 45 € kostako da; bi saioetan parte hartzea, berriz, 70 €. Informazio gehiagorako info@iaranasistemak.com helbidera idatzi daiteke.



Irakasleen artean kezka eragiten duen gaia da ebaluazioarena. Zer eta nola ebaluatu? Nola neurtu ikaslearen garapena? Nola jakin aurrez ezarritako helburuak betetzen diren?... Eta hori dena zertarako? Zer lortu nahi da ebaluazioarekin? Horren guztiaren inguruan hausnartzeko eta ebaluazioa ulertzeko moduan ikuspegi berri bat proposatzeko “Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa” izeneko lana prestatu dute Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea irakasleek. Ikaslea ebaluatzen duen paradigmatic testuingurua ebaluatuko duen paradigmara nola igaro aztertzen dute bertan. Monografiko formatuan emango du argitara Hik Hasik Durangoko Azoka baino lehen.

GAIA:

EBALUAZIOA

BIRPENTSATUZ

Haurra ebaluatzetik testuingurua ebaluatzera

Ebaluazioa ardura handiko kontua izan ohi da hezkuntzan dabilzan profesional gehienentzat. Gai arantzatsua eta kezka eragiten duena. Zer dago, baina, horren guztiaren atzean? Zergatik da hain korapilatsua ebaluazioaren auzia? Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea Mondragon Unibertsitateko HUEZI fakultateko irakasleek argi diote: “Ebaluazioak eskola, pertsona eta haren garapena ulertzeko modua ezkututzen du bere baitan. Alde batetik, pentsatzen dugu ikasle talde batek mugarri berberak lortu behar dituela, alegia, irakasleak ikasle denei irakaste-prozesu bera eskaini behar diela. Bestetik, berriz, uste dugu ikasleek dena ikasteke dutela, berezko gaitasunik izango ez balute bezala. Ikasteak du zentralitatea eskoletan eta helmuga da aldi berean, eta sinetsita gaude ikasleak soilik ikasten duela irakasleak erakusten diolako”.

Ikuspegi horri buelta eman eta ebaluazioa ulertzeko moduan ikuspegi berri bat proposatzeko *Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa* izeneko lana ondu dute Hazitegi Ikertaldeko bi irakasleok, eta Hik Hasik emango du argitara monografiko formatuan. Paradigma aldaketa egiteko “pertsona den horretatik” abiatu behar dela diote; horrek *ikasle* hitza baztertzeraz eta *pertsona* azpimarratzeraz daramatza. Premisa hori abiapuntu hartuta, lehen haurtzaroen pertsona zer den, nola garatzen den eta zein behar dituen azaltzen dute adituek monografikoan, ondoren, ebaluazio-para-



Alexander Barandiaran.



Iñaki Larrea.

digma berria aurkezteko. Hain zuzen ere, ebaluazioaren paradigma aldaketa egiteko Euskal Herriko eskola batean zer-nolako praktika ari diren egiten deskribatzen dute.

Zer testuinguru eskaintzen diogu haurrari?

Gaur egun indarrean dagoen paradigmak ikaslea ebaluatzea du jomugan, Barandiaranen eta Larrearen hitzetan. Izan ere, orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu duen 12/2009 dekretuak, nahiz Heziberrri 2020k oinarrian ideia bera dute ikerlarien arabera: umeak dena ikasten du. Ikuspegi horrek paradigma konduktista

GAIA:

EBALUAZIOA BIRPENTSATUZ

Haurra ebaluatetik testuinguru ebaluatzer

du jatorrian: umea orri zuri bat bezalakoa da, irakatsi egin behar zaio, ez baitirudi berez gaitasunik duenik.

Ikaslea ebaluatzea helburu duen paradigma aspaldikoa dela diote HUEZIKO irakasleek. Ebaluazioa ulertzeko modu horren arabera, pertsonaren egoeraren erantzulea pertsona bera da, eta testuinguruak ez du zerikusirik pertsona horren garapenean eta bizi duen egoeran. Ikasleak ikasten ez badu, jokabide desegokia badu edo parekoekin gaizki moldatzen bada, berea da erantzukizuna eta testuinguruak ez da zalantzan jartzen. Beste era batera esanda, ebaluazioaren emaitza desegokia bada, irakaslea ikaslea aldatzen saiatzen da testuinguruan aldaketarik egin gabe. Izan ere, ikaslearen ardura da irakasleak eskaintzen duen testuingurura moldatzea.



Horren erakusle litzateke, adibidez, Heziberri 2020k aipatzen duen irteera-profila, umeak ikastearen bidez eskuratu behar dituen oinarrizko kompetentziei erreferentzia egiten diena. Horren arabera, eduki multzo jakin bat ikasi behar du haurrak, eta profilerak hiltzen ez bada, porroterako bidea hartzen du. “Iruditzen zaigu umearen eskubideak urratzeko arriskua dakargula horrek”. Era berean, ikaslearen aurrerapena egokia ez denean indartze-neurriak hartuko direla dio curriculum berriak. Barandiaranen eta Larrearen irudiko, ikaslea ez-gai bihurtzeko arriskua legoke kasu horretan. “Antza testuinguruaren eragina eragiketarik at geratzen da. Baina ohartu behar dugu zailtasunak agertzea normala dela umea aintzat hartu gabe helduok helmugak jartzen dizkiongunean”.

Barandiaranen eta Larrearen aburuz, gaur egun indarrean dagoen ebaluazioaren paradigmak ez du aintzat hartzen ikuspuntu sistemikoa, “uneotan guztiz onartuta dagoena”. Ikuspegi sistemikoak dio testuinguru edo sistema bateko elementu guztiak elkarreaginean daudela eta elementu bakoitzaren garapena elkarrekintza horien arabera dela. Horrexegatik, adituek uste dute ebaluazioa umeak erakusten dituen jokabideetan oinarritzea haurren garapena oker ulertzearen ondorio dela, ez delako aintzat hartzen umearen testuinguruak: “Gaur egunera arte dugun ezagutzak erakusten digu umea gaitasunekin sortzen den pertsona dela eta bizi duen testuinguruaren arabera gaitasun horiek garatuko dituela neurri batean edo bestean”. Horrexegatik, aldarrikatzen dute ebaluazioa ez litzatekeela umearengan oinarritu behar, bizi duen testuinguruan baizik. Zehazki ebaluatu beharrezkoa zera litzateke: umeari eskaini zaion testuinguruak bere gaitasunak zein neurritan garatzeko aukera eman dion”.

Eskolaren kultura berri bat

6 urte arteko umearentzat testuingururik eraginkorrena bere familia da eta horren atzetik dator eskola. Barandiaranek eta Larreak adierazten dutenez, eskolatik ia ezinezkoa da familiaren testuinguruak umearengan izan duen eragina ebaluatzea. Aldiz, eskolako testuinguruak aztertze badiara bitartekoak. Umearen garapenean eraginik handiena duena heldua denez —eta haurrak harekin duen harremana—, lehenik, helduak umeari eskaintzen dion harremanean oinarritu behar litzateke ebaluazioa. Bigarrenik, kontuan izanik helduak haurrari espazio eta denbora zehatz batean objektuekin kontaktuan egoteko aukera eskaintzen diola, ebaluazioak bere baitan hartu behar luke espazio (material) eta denboraren antolaketaren azterketa. Azkenik,

GAIA: EBALUAZIOA BIRPENTSATUZ

eskolak haurrari beste umeekin harremanak izateko aukera ematen dionez, harreman horiek osasuntsuki eraikitzeke abagunerik ba ote lukeen baloratu beharko litzateke.

Hortaz, umeari eskolak eskaini dionak haur horrengan izan duen eragina ebaluatuko balitz, ebaluazioa ez litzateke inolaz ere umearengan zentratuko. Hartara, edozein hobekuntza umeari eskainitako horren baitan egongo litzateke. Barandiaranek eta Larreak azaltzen duten moduan, soilik modu horretan lor daiteke edozein umeren jokabidea aldatzea, beti ere umearentzako osasuntsua dena jomugan jarritz. Gaur egunera arte, ordea, kontrakoa egin dela salatzen dute: “Orain arte eskolak ontzat hartutako jokabide eta jarrera batzuk erakutsi ez baditu haurrak, heldua saiatu da haur hori aldatzen, baina testuingurua ukitu gabe. Esperientziak erakutsi digu, hori ezinezkoa dela, umea erreprimitz ez bada. Eta errepresioa erabiliz gero, jakina da umeari mesede baino kalte gehiago egiten zaiola bere garapen osasuntsua oztopatuz”.

Horregatik guztiagatik, ebaluazioaren paradigma aldatzearen premiaz hitz egiten dute Barandiaranek eta Larreak. Pertsonarengan oinarritutako ebaluaziotik testuinguruan oi-

narritutako ebaluaziora pasatzeaz ari dira: “Aldaketa horrek fokua umearengan jarri beharrean irakaslearengan jartzea suposatzen du. Norberaren burua ebaluatzeak, batetik, auto-ebaluazioa dakar, eta bestetik, espazioak, materialak eta denborak ume bakoitzarengan duen eragina neurtzea”. Beraz, Hazitegiko ikerlariek proposatzen duten ebaluazio-paradigmak eskolaren kultura berri bat ekarriko luke, “eta horretarako bidea egin behar da, orain arte egin ez dena, baina gure umeen ongizateak merezi duena”.

Ebaluazioa, haurra ulertzeko moduarekin bat

Barandiaranek eta Larreak dioten moduan, testuinguruak baldintza dezake haurraren garapen osasuntsua. Eta Haur Hezkuntza etapa gakotzat hartzen dute ikerlariek. Eskolako praktikak haurra ulertzeko moduarekin koherentea izan behar duela iruditzen zaie, eta, beraz, baita ebaluazioak ere. Alegia, ebaluazio-paradigmak bat etorri behar luke Haur Hezkuntzaren gaineko ikuspegiarekin eta etapa horretako helburuekin. “Dakigun bezala adin tarte honetan bizitakoak aparteko eragina du pertsonaren garapenaren norabidean. Horregatik, iruditzen zaigu arreta berezia jarri behar dugula



GAIA: EBALUAZIOA BIRPENTSATUZ

Haurra ebaluatzetik testuingurua ebaluatzera



Haur Hezkuntzan; esfortzu berezia egin behar dugula etaparen ezaugarriak ulertzeko; horiekiko koherentea den eskaintza egiteko; eta gure egunerokotasuna ebaluatzeko”.

Eta ebaluazioak bat etorri behar badu Haur Hezkuntzako helburuekin, zein dira etapa horretan lortu nahi diren xedeak? HUHEZIKo maisuen arabera, eskola askotan Lehen Hezkuntzako helburuak Haur Hezkuntzara eramateko bidea abiatu dute, umeen ongizatearen kaltetan. Beraz, argi eman behar litzaioke ezetza joera horri. Behin puntu hori argi utzirik, iruditzen zaie helburuek ere paradigma aldaketa behar dutela, oraindik ere “ikastea” jartzen delako fokua toki askotan. Euren proposatzen duten ebaluazio-paradigmak, berriz, azken helburu bakarra du: haurren ongizatea. “Kontuan hartuta pertsonaren bizitzan lehenengo 7-8 urteak garrantzitsuenak direla, haur bakoitzaren ongizatea bermatzea izango da eskolaren lehentasuna. Beste guztia —baita ikastea ere— horren ondorio izango da”. Eta adituek gaineratzen dutenez, haurrak ongizatea lortuko du bere gaitasunak garatzeko aukera egokiak eskaintzen bazaizkio: “Haurrak gaitasuna badauka helduarekin lotura esanguratsua eraikitzeko, bere burua eta testuingurua deskubritzeko, jolasteko, imitatzeko, esperimentatzeko, bere barneko bizi-penak proiektatzeko, erakusteko eta lotsatzeko, beldurtzeko, bere parekoekin hartu-eman positiboak izateko, kooperatze-

ko, era askotara komunikatzeko, mugitzeko, barre egiteko, disfrutatzeko, erabakiak hartzeko, bizitzen duen guztiarekin loturak egiteko... helduon egitekoa gaitasun horiei guztiei bide ematea litzateke”.

Hortaz, Haur Hezkuntzako helburua izango litzateke umeei eskaintako aukera horiek pentsatu, antolatu, gauzatu eta ebaluatzea, horien garapenaren bidez haur bakoitza zoriontsu izan dadin. “Gure ebaluazio-paradigmak, beraz, Haur Hezkuntzarako helburu nagusi horrekin egiten du bat eta, horrenbestez, helburuak ohiko ikaste-emaitezkin lotzeko joerarekin apurtzen du”.

Haur Hezkuntzaren garrantzia aitortuta eta bere helburu nagusia haurren garapen osasuntsua dela onartuta, Barandiaranek eta Larreak eskola ez dute “ikasteko” toki soiltzat hartzen. “Ez gatoz bat haurrei jaten, lo egiten edo ikasten ‘irakatsi’ behar diegula dioten horiekin, ezta haurrak ‘instruitu’ behar ditugula diotenekin ere”. Izan ere, haurra modu “natural” batean ikusten dute, testuinguru naturalera moldatzeko gaitasunekin. “Horregatik, testuinguru ekologikoa aldarrikatzen dugu, naturala; pertsona moduan garatzeko egokia den testuingurua, alegia. Hortaz, ikastea helburutzat baino gehiago, ondorioztat duen garapen testuinguru ekologikoaren zatitza hartzen dugu eskola”.

Harremanak, espazioa eta materiala

Testuinguruaren ezaugarrien arabera, haurraren garapenak norabide bat edo beste har dezake, onera zein okerrera, Barandiaranek eta Larreak diotenez. Horregatik egiten dute garapen testuinguru ekologikoaren alde: haurraren garapen osasuntsua sustatzeko bere gaitasun guztiei (atxikitze, arakatzeko, beldurtzeko, berdinkideekin harremanak izateko...) modu egokian erantzuten diela uste dutelako. Horretarako, eguneroko praktikan nahiz ebaluazioan ezinbestean kontuan izan beharreko hiru arlo identifikatzen dituzte: harremanak, espazioa eta materiala.

Testuinguruak aldagai asko biltzen baditu ere, HUHEZIKo irakasleen iritziz, aparteko garrantzia dute eskolan erakitzen diren harremanek; haurrek beren inguruko berdinkideekin eta bereziki helduekin dituzten elkarrekintzak gakoak iruditzen zaizkie. Zentzu horretan, haurrak bere ahozko hizkuntzaren bidez nahiz bere jokabidearen bidez, hau da, mugimenduen, keinuen, begiradaren, negarraren, irribarrearen, ahoskeraren... bidez bere beharrak adierazten dituela diote, eta heldu sentikorrak umea behatzen duenez, jokabide horiek egoki interpretatzeko gai izan behar duela, hots, jokabide horien esanahia antzemateko gai, alegia gai izango dela jakiteko umeari zer gertatzen zaion, zer behar duen, eta hori kontuan izanda haren premiak asetzeko "Zerretarako gai den eta zertarako ez haurrak berak deskubritu behar du, aurrean dituen erronkei noiz eta nola aurre egingo dien erabakiz. Heldu sentikorrak, beraz, haurraren berezko erritmoak errespetatzen ditu".

Barandiaranen eta Larrearen hitzetan, sentikortasunak eskatzen du begirada umearengan jartzea, umea den bezala ikustea, eta ez helduari gustatuko litzaiokeen bezala. Heldu sentikorren kontrako muturrean leudeke sarkorrak eta arduragabeak direnak: "Arduragabeki jokutzen duenak ez du umea buruan, nahikoa lan du bere beharrak asetzerekin, eta agian horiek ase gabe dituelako ezin du besterik egin, akaso zaintza behar duen heldu batek ezingo du ume baten ardura hartu, agian heldutasun minimo bat behar da horretarako. Aldiz, heldu hori sarkorra bada, haurra izango du buruan, baina ez aurrean duen benetako haurra, bere buruan irudikatu duen ume 'ideal' bat baizik. Alegia, ez da gai aurrean duen haurra ikusteko, baizik eta haur hori izatea nahiko lukeen horretan zentratzen da".

Kontrara, ordea, Barandiaranek eta Larreak adierazten duten eran, haurrak bera "ikusten" duen pertsona behar du alboan, "sentikorra dena haurraren beharren aurrean, bartzuetan behar horiek aurrez ikusten dituen, maitasunezko begiradaz begiratzen duena, ulertuko duena, bere frustrazioen ondorioak jasaten dituen, errudun sentiarazten ez duena, berarekiko harremanean mugak jartzen dizkiona, koherentea dena, umearen seinale guztiak ikusi, egoki interpretatu eta egoki erantzuten dituen". Eta ikerlariak gaineratzen duten moduan, irakaslea sentikorra izan dadin zainduta sentitu behar da. "Horrek eramango gintuzke denok elkar zaintzen dugun eredu batera".

Garapen testuinguru ekologikoaren beste aldagai garrantzitsu bat testuinguru fisikoa da, eta berorri osatzen duten espazioa eta materialak. HUHEZIKo irakasleen hitzetan, haurrak bere garapen osasuntsurako hobesten du ukitu, usaindu, entzun, ikusi eta dasta dezakeen testuinguru eskuragarri izatea. Horrek, alde batetik, eskatuko luke material anitzak erabiltzea. Zentzu horretan, Barandiaranek eta Larreak azaltzen dutenez, helduak zera galdetu beharko lioke bere buruari: "Material hauek zer deskubritzeko aukera ematen diote haurrari?". Izan ere, eransten dutenez, eza gutza ondo eraiki ahal izateko, norbaitek zerbait kontatzea baino garrantzitsuagoa da, norberak deskubritzea, ukitzea, dastatzea, bizitzea... "Horretarako, helduak materialak espazio zehatz batean kokatu eta antolatu behar ditu. Komeni da espazioa zabala izatea, umearen ibilbideak mugatzen ez dituen eta aldi berean definituta dagoena, erraz identifika daitekeena eta gainontzeko umeekin elkarrekintza izateko aukera ematen duena".





“Beldurra ematen du immigrazioak,
baina immigrariak ez”

ELKARRIZKETA: XABIER AIERDI

EHU-KO SOZIOLOGIA ETA GIZARTE LANGINTZA SAILEKO IRAKASLEA, IMMIGRAZIOAN ADITUA

Eskolak immigrazioaren argazki bat erakusten du, eta, ondorioz, irakasleek beste edozein sektoretako profesionalek baino gertuago dute immigrazioa. Migrazio-fenomenoak ulertzeko pedagogia-lana egiteko eskatu diogu Xabier Aierdi soziologoari (Zeberio, Bizkaia, 1957). Optimista da: “Kristauek esaten dute Jainkoak lerro okerrekin zuzen idazten duela, bada, nik esango

nuke, gizarteak, eta gure gizarteak ere, uste oso gaiztoekin ere ondo portatzen direla. Egunerokotasunean gatazka eta diskriminazioa ez dira hain handiak, eta hemen bizi gara ahal dugun moduan.” Baliabideak behar direla dio, eta programak, baina baita borondatea ere. Eta epe luzera begiratzea. “Prozesu baten hasieran gaude, eta denborak ekarriko du immigrazioaren normaltze bat”.

Bazirudien Gibraltarko itsasarteko etorrera handi haiek immigrazioak goia jo zuela. Gaur egun beste pasabide batzuetatik, Libiatik Italiarako kostara adibidez, jendeak etortzen jarraitzen du, saldoka. Une honetan hona etortzen ari den immigrazioaren erradiografia nolako da?

Gure erkidegora datorren jendearen erradiografia oso lotua dago zaintzaren eremuarekin, eta zaintzaren eremua, halaber, baina emakumearekin dago lotuta, eta ahal izanez gero, emakume latinoamerikarrekin eta zuriarekin. Zailago da magrebtar bat, edo txinatar bat edo emakume pakistandar bat, edo Afrika beltzeko emakume bat norberaren etxean sartzea. Gure erradiografia, izan hori da. Eta neurri batean bertako klase ertainak konfiantza daukan bitartean, eta ikusten badu ez dagoela arriskuan bere posizio ekonomikoa eta kontratatu dezakeela norbait, ba orduan emakumeren bat kontratatuko du gurasoak edo seme-alabak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko.

Hor badaude hainbat gauza lotuta: familia txikiak ditugu, alde batetik; beste alde batetik, zaharkitzen ari

den gizartea dugu, zaintza-premiak gero eta handiagoak dituen, eta horrek publikoki edukiko lukeen kostua jasanezina da gaur egun. Horrek guztiak zer eragiten du? Bide merkeena bilatzea: mendekotasun-legeak ematen dizu zati bat pertsona bat kontratatzeko, eta gainontzekoa familiakook ipintzen dugu.

Horrez aparte, badago immigrazioari eragiten dion beste fenomeno bat: Afrikako biztanleria oso gaztea dela -magrebtarren estatuetan biztanleriaren % 30ak 15 urte baino gutxiago dauka-, eta hor badagoela presiozko egoera bat. Bertako sistema produktiboak ezin du jende hori irentsi, beraz, horrek kanporanzko mugimendu bat bultzatuko du, seguruenik guk behar ez duguna, baina nolabait kuota bat iritsiko zaiguna.

Zergatik esaten duzu “behar ez duguna”? Nola funtzionatzen dute migrazio-mugimenduek?

Ba gauza simple batengatik: normalean gizarte hartzailea da selekzionatzen duena ze jende iritsiko zaion. Migrazioak mugimendu kaotikoak direla dirudi, eta inolako logikarik

gabe disparatzen direla, baina ez da hala. Banan-banan funtzionatzen duen sistema da, oso sinplea: pertsona bat ekartzen baduzu zuk zure etxean lan egiteko, ondokoak ikusi egiten du. Duela 40 urte gizonak behar ziren fabriketan lan egiteko. Gaur egun fabrika edo kontratista familia bat da, edo zerbitzuen sektorea. Lehenengo jendea Burgesetik heldu zen, Burgos hustu zenean Palentziatik etorri zen; Palentzia hustu zenean Leonetik, eta gero Galiziara heldu zen uholdea, eta beranduago Salamancara, Ruta de la Plata-tik Extremadurara... Horrek zer adierazten du? Tanta batek beste tanta bat deitzen duela. Mekanismo horrek, batetik, fluxuak eta kopuruak kontrolatzen ditu, ze momentu batean gelditu egiten da migrazioa: “Zer, joan naiteke?” “ez, ez etorri, gauzak hemen gorri daude”. Aldiz bertako jendeak eskatzen duenean, eskaera azkartu egiten da eta jende gehiago ekartzen da. Prozesua pentsatzen duguna baino askoz kontrolatuagoa da. Eta bigarrenik, kontrolatzeaz aparte, gu selekzionatzen ari gara zer publiko nahi dugun: nik behar badut



emakume bat neure ama zaintzeko, ba, euskara jakingo ez duen moduan, gutxienez gaztelera jakin dezala bilatuko dut. Garai batean, euskaraz zekitenak eta ikasteko aukerarik ez zutenak, zerbitzatzera joaten ziren Donostiara. Hau da, neurri batean, ordezkaten ari gara aldez aurretik egon diren mugimendu berdin-berdinak baina orain urrutiko jende batekin eta ditugun premien arabera.

Immigrazioaz hitz egitean, ordea, iruditeria kolektiboan telebistan ikusten dugun emigrazioa da nagusi, gerretatik ihesi Lampedusara iritsi nahian doazenak, adibidez... Alabaina zuk diozunez, hori ez da hona iristen den immigrazioa.

Ez, hori ez da hona heltzen den immigrazio nagusia.

Iritzi publikoari ez zaio gustatzen immigrazioa, hortik abiatu behar dugu. Bakioitzak gai honi –eta besteei– dauzkan jarreraren arabera begiratzen die, esate baterako: Orain ikusten badugu hor kalean doan mutiko hori euskaraz hitz egiten, euskaltzale bat pozik egongo da, euskaldun bat beltza izan daitekeela, edo beltzak euskaldundu daitezkeela pentsatuko baitu. Aldiz, hemen baldin badago emigrarien kontrako norbait, Txinara deslokalizatu dutelako bere enpresa, ba horrek ikuspegi horretatik ikusiko du migrazioa. Dauzkagun jarrera pertsonaletatik gehi bizi ditugun egitura edo koiunturetatik ikusten dugu emigrazioa, eta horrez gain hedabideak ditugu. Eta hedabideek zer ematen digute? Irudi sinplifikatu bat.

Eta prozesu konplexu eta global bat sinplifikatzeak zer ondorio du?

Estereotipoak sortzea. Garbi izan behar dugu desenfoke bat dagoela, beste gai guztietan bezala, baina desenfoke horrek sortzen dituen estereotipoak kontrolatu egin behar ditugu, horrek jende hori txarto tratatzeko nolabaiteko aukeraren bat ematen badigu. Baina estereotipoak hor daude, eta estereotipoekin funtzionatu behar dugu, horrek ez gaitu kezkatu behar. Errealitatea sinplifikatzeak diskriminazioa dakarrenean bai, orduan egon behar dugu adi, ez dadila bata izan

bestearentzako zubi.

Klixekak gaintzeko, estereotipoak eta aurreiritziak gaintzeko kristoren lana egin behar dugu, baina hori zirimiri bat da, ez da uholde bidez egingo den erregadioa. Astiro-astiro egin behar da, denboraren dimentsioak garrantzi handia baitu immigrazio-prozesuetan. Nork pentsatuko zukeen Athleticen beltz batek jokatuko zuela? Eta hortxe dago Williams. Bada hor doan neska magrebtar horrek hemen bizitza arrunta egingo du eta edukiko ditu sufrimenduak eta lorpenak mundu guztiaren modukoak, egunen batean ezkonduko da eta seme-alabak edukiko ditu, eta seme-alaba horiek euskaraz egingo dute... denborak ekarriko digu horren guztiaren normaltze bat. Niri asko gustatzen zait Marguerite Yourcenaren liburu baten titulua, gaztelaniaz da *El tiempo, ese gran escultor*. Nik uste dut egia dela, denborak ematen digu patxada gauzei begiratzeko normaltasun gehiagogaz. Bitartean gertatuko dira gauza gordinak eta lasaiagoak. Eta egokitzapena izango da izango den modukoa. Bitartean estereotipoak egongo dira. Errealitate-datuen eta usteen artean, beti irabazten dute usteek.

Eta zergatik izan ohi dira immigrazio-gaiei buruz zabalduriko uste gehienak txarrak? Zergatik ez da jokatzen enpatia gehiagoz gu baino egoera okerragoan datorren jendearekin?

Usteak beti erdi ustelak dira, erre-frauek dioen bezala. Pentsatu behar duguna da usterik gabe oso zaila dela munduan egotea, errealitatearen konplexutasuna azken muturreraino ezagutzea oso konplexua da eta seguruenik ezinezkoa baita. Gizakiok behar dugu eta asko eskertzen dugu sinplifikazioa. Gizakiaren osagai bat usteak eta estereotipoak dira. Jendeari esan behar zaiona da usteak eta zurrumurruak edukitzeko eskubidea baduela, baina okerrak direnez ez daukala eskubiderik gaizki jokatzeko. Kontuz! Ezin dugu irudi oker, estereotipo, ustezko zurrumuru horietan oinarririk inpunitate eremurik sortu. Horrek argi geratu behar du. Zuk nahi duzuna pentsa dezakezu, baina ezin duzu pasatu usteetatik ekintze-

“Dauzkagun jarrera pertsonaletatik gehi bizi ditugun egitura edo koiunturetatik ikusten dugu emigrazioa”

“Enpatia gabe bizitza oso lasaia izan daiteke, eta bizikidetzaren seguruenik ez, baina koexistentzia oso atsegina bat eduki dezakegu”

“Anbibalenteei eman behar zaizkie argumentu positibo batzuk beste aldera joan ez daitezen”



tara, eta normalean ez da pasatzen. Kristauek esaten dute Jainkoak lerro okerrekin zuzen idazten duela, bada, nik esango nuke, gizarteak, eta gure gizarteak ere, uste oso gaiztoekin ere ondo portatzen direla. Egunerokotasunean gatazka eta diskriminazioa ez dira hain handiak, eta hemen bizi gara ahal dugun moduan. Ni horretan optimista naiz.

Enpatia, enpatia faktikoa edo enpirikoa, seguruenik uste duguna baino gehiago dago. Ze bestela honek lehertu egingo luke. Problema zein da? problema da norbaitek bide ematen dionean inpunitateari. Hau da, Brexitak arrakasta izan dezan politikaren eremuan etorkinak erabiltzen badituzu, Ingalaterra guztia izurratzen ari direla esaten baduzu, bidea irekitzen ari zatzaizkio inpunitateari. Jarreraz immigrariak gustuko ez dituen sektore bati, gainera, jarreraz biolentzia izan daitekeenari, eta gainera egoera ekonomiko batek bizitza izurratzen dionari, adibidez bera lanean dagoela eta beste batzuk lanean egon barik protekzio soziala dutela ikusten duenari, horrelako eremu abonatu batean politikariak halako mezu bat botatzen badu, norbaitek txarto ekitea gerta daiteke, konportaera txarra baimendurik baitago. Marotok esaten ditu esaten dituenak Gasteizen, eta egun batean autobus txofer gijajo bat bai-

mendua sentitzen da emakume bati igotzen ez uzteko zapia daramalako; hori da arriskutsua. Arriskutsua da erakundeetatik, eremu publikoetatik, elizatik, eremu legitimatu batetik heltzen zaizunean mezu bat esanaz, nahi duzuna egin dezakezula. Hori da arriskutsua. Bitartean, bitartean bizi gara, hobeto edo txarrago.

Enpatia beharrezkoa da, bai, baina enpatia gabe ere bizitza oso lasaia izan daiteke, eta bizikidetzaren seguruena ez, baina koexistentzia oso atsegin bat eduki dezakegu. Igual ez dugu konbidentziaraino heldu behar, baina koexistentzia arrazoizko bat ere baloratu egin behar dugu. Zenbat aldiz pentsatu dugu ez dugula ezer jakin nahi familiako batekin, kristorena muntatzen duelako elkartzen garenean?

Zer egin daiteke immigrazioari buruz zabalduriko sinesmen horiek aipatzen duzun koexistentzia baten mesedetan egon daitezen?

Zurrumurruen aurkako sarea oso inportantea da. Prest dagoen jendeari eta nolabaiteko enpatia eta tolerantzia dituen jendeari argumentuak erakutsi behar zaizkio zirimiriarena egin dezan astiro. Alde batean izango ditugu uzkurak, immigrazioaren kontra daudenak; beste alde batetik tolerantziak ditugu; baina, normalean, gizarte-

oreka eta bakea erdian jokatzen dira, anibalenteekin. Anibalenteei eman behar zaizkie argumentu positibo batzuk beste aldera joan ez daitezen. Eta hor jokatu behar dugu. Pentsatzen dugu erdian dagoen jende horrek berez aldatuko duela iritzia, baina ez, errealitate-datuek ez dituzte sekula sinesmenak eta usteak indargabetzen. Pertsonak, azken finean, pertsona gara taldeetan gaudelako eta talde-sinesmenak ditugulako. Eta talde-sinesmen horiekin, beste pertsona batzuekin, osatzen ditugu giza taldeak, giza talde erosoak. Eta zu non zaude gustura? Zu bezala pentsatzen dutenekin. Jendearentzako oso inportantea da bere usteak taldeko kideen aldetik konfirmatuta dauden testuinguru batean egotea. Hori ezin da aldatu, hori bideratu egin behar da: gizakiak gizaki gara eta bihar ere gizaki izango gara, hori ezingo dugu sekula aldatu. Baina bidera dezakegu: uste oker bat, tentazio txar bat, jokaera maltzur bat portaera on batera bideratu behar dugu.

Genero biolentziarekin egin dena egin behar da, nolabait, immigrazioaren gaiarekin. Alde batetik legedi bat muntatu behar da, kontestu instituzional bat esanaz, "kontuz!". Eta, beste alde batetik, sozialki eskaera bat behar da. Eta lortu behar da sozialki dagoen eskaera eta goitik

datorren presio instituzionalak bat egin dezatela. Duela 20-25 urte inork ez zuen salatzen 116an alboko gizona emakumea jipoitzen ari bazen, gaur kontestu bat zabaldu da non hori posible den. Astiro-astiro kontestu bat sortu behar dugu, ze gero, gauzak bere kabuz sortuko dira. Ikaratu egin behar dugu? Bai, baina lasaitasuna ere inportantea da. Pentsa dezagun, zenbat diskriminazio erreal dago? Zenbat eraso daude? Zenbat? Hori ere baloratu egin behar dugu. Ze bestela, geu ere kontrazurrumurru bat sortzen ari gara, oso minoritarioa denari garrantzia emanaz. Dena den, hau guztia gaitza da, oso konplexua da.

Faktore asko nahasten dira, askotariko sinesmenak eta usteak, alde batetik, egitateak bestetik, faktore koiunturalak... Immigrazioaren gaia hain konplexua izanik, helburu lehe-na elkarbizitza beharrea elkarren arteko koexistentzia jartzea lagungarri izan daiteke?

Bai. *Immigrazioaren paktua* erre-daktatzen ibili ginenean oso jende desberdina batu ginen, eta debate oso inportante bat izan zen: ea *aniztasunaren* edo *immigrazioaren* paktua izan behar zuen. Ni *immigrazioaren aldeko paktu* baten alde azaldu nintzen, zergatik? Nik uste dut askotan pentsatzen dugula etapak erre egiten ditugula promulgatzen ditugulako, horietaz hitz egiten dugulako. “Hemen behar duguna da konbibentzia” esaten dugu, eta bai, eta normatiboki horrek izan behar du helburua, eta helburu horretara abiatu behar dugu, baina hasi gaitezen oinarritzko pausoeekin. Lehenengo eta behin kuriositatea sortu behar dugu, “joño! Ze jende ezberdina bizi den dagoeneko hemen!”, eta gero ikusiko dugu jende horretako zati bat zure herriko eskolaumeekin eskolan daudela, “joño! eskolan ere badaude! eta auzoan, eta eskaileran!”. Horrela koexistenziara pasako gara. Eta koexistentzia ez-gatazkatu batera pasatzea aurrerapauso ikaragarria da. Gero etor daiteke konbibentzia, eta horretarako era guztietako programak egon beharko dira, eta normaltasuna esongo da.

Zuk taberna batean honako egoera hau ikus dezakezu: lau poteatzaile immigrazioaz gaizki esaka ari dira, eta ordaintzerakoan konturatzen dira zerbitzaria, entzuten egon dena, immigraria dela, eta esaten diote automatikoki, “e, baina esan dugunak ez dauka zerikusirik zurekin, zu adiskidea zara!”. Immigrazioaz gaizki hitz egiten da, baina immigrazioaz ez da gaizki hitz egiten. Beldurra ematen du immigrazioak, fenomenoak bere osotasunean, baina immigrariak banan-banan ez. Esaten dira hone-lakoak: “immigrariak etorri dira dena eramaten, baina nik etxean daukadan neska ikaragarri maja da, eta langilea eta fina, pertsona ona. Zelan babesten duen ama”. Immigrazioa mikrorra ekartzen ahuldu egiten da beldurra, eta ondu egiten da makroan txarto ikusten dugun fenomenoak.

Hobe beharrez, zurrumurruak gainditzeko eta immigrazioaren iritzi ona zabaltzeko helburuz, edulkoratu egiten dugu immigrazioaren errealitatea?

Bai, batzuetan edulkoratu egiten dugu errealitatea, eta esaten dugu, “ez da hainbesterako”. Eta ez da horrela: bada bada, eta ez bada, ez da. Zuk ere sinesgarria izan behar duzu besteen aurreiritziak apurtu gura badituzu. Inportanteena da errealitatearen ahal den eta ikuspeirik neurtuena, zientifikoena eta errealitatearen egokituena ematea, jakinda datuekin eta sentsibilizazio-kanpaina orokorrekin ez garela helduko uste horiek apurtzera. Prozesuaren hasierako fasean gaudenez, sentsibilizazio oso orokorra egiten dugu, eta ziurrenik publikoaren arabera berezitu egin beharko genuke. Zer gertatzen da? Guk gure burua progretzat daukagula, eta uste dugu egian gaudela, eta egian gaudenez arrazoia daukagula eta arrazoia daukagun neurrian besteek sinetsi egin behar digutela, eta besteek pentsatzen dute gu *gilipollas* batzuk garela.

Guk pentsatzen dugu asmo on eta helburu onetara bideratutako programak, nahiak, desioak eta proiektuak planteatzen ari garenez jendea konbentzituko dugula, baina jendeak esaten du, “Niri horrek zer?”. Uste

“Gainontzeko bertako ikasleek duten koexistentzia lortu behar dugu bertako eta immigrariaren seme-alaben harremanean, ez gehiago ez gutxiago”

“Ezin dugu immigrazioa, ez gela barruan ez gelatik kanpo, parke tematiko batean bilakatu, ze askotan hori egiten dugu”

“Erljioak hartzen duen dimentsioa ulertu behar dugu, ezin dugu munduan erlijiorik ez balego bezala bizi, distantzia hori Europako anomalia bat besterik ez da”



dugu arrazoiarekin alda dezakegula errealitatea, eta arrazoa edukitzea balitz kontua, aspalditik paradisu batean biziko ginatke, baina jende bati berdin dio gure arrazoiak.

Koexistentzia eta elkarbizitzari dagokionez, eskolan koexistentziarekin konformatu behar gara?

Bai. Hasieran bai. Gainontzeko bertako ikasleek duten koexistentzia lortu behar dugu bertako eta immigrariaren seme-alaben harremanean, ez gehiago ez gutxiago. Eskola, beste hainbat eremu bezala, gudaleku bat izaten da, eta eskola batean egon litezke taldeak eta azpitaldeak, patioa izan liteke portaera ekologikoaren leku edo sabana bezain basatia, edo Port Aventura bezain erakargarria. Uler-tu behar duguna da ez dugula ezer berezirik egin behar egoera (teorian) berezi batentzako. Irakasleak — hezkuntza-sistemak — lehenengo egoera normaldu egin behar du, hau da, eskolara etorri zaizkio ikasle berri batzuk. Egoera horretan, nik uste dut

funtzionatu behar duela nolabaiteko babesak, enpatiak, baina era berean indiferentziak. Oso inportantea da indiferentziaren printzipioa. Tolerantzia askotan indiferentzian oinarritzen da, ez maitasunean, ez afektibitatean. Guri zer gustatzen zaigu Donostiara joaten garenean? anonimo izatea. Immigraria askotan ezin da anonimoa izan. Zergatik ez diogu ematen aukera indiferentea izan dadin?

Baina horrek arrisku bat dakar berekin, indiferentzian uzten badugu, atzean utz dezakegu ikasle hori.

Ez, ez, ez naiz ari horretaz. Indiferentziak esango luke, “hau beltza baino ez da”, “hau latinoamerikarren semea baino ez da”. Iritsi beharko ginatke imigrariak beharrean pertsonak ikustera, hori litzateke konbidentzia suprema, baina indiferentzia da esatea, “begira, nik zu bezalakoa izan nahi dut”. Immigrariari honakoa esan ohi diogu: “ez zuk afrikarra izan behar duzu eta berreskuratu behar duzu Afrikako kultura, ze benetakotasuna hor dago...”

eta berak esaten dizu, “ez, ez, nik zure modukoa izan nahi dut”. Permitted egin behar diogu. Ezin dugu immigrazioa, ez gela barruan ez gelatik kanpo, parke tematiko batean bilakatu, ze askotan hori egiten dugu.

Zein da ikasle immigraria eskolan sartzeko bidea?

Astiro-astiro joatea. Irakasle batek -hezkuntza-sistemak-, lehenik, fijatu behar du ea pertsona hori defizit batzuekin etorri den, eta defizit horiek zelan konpentsatu, batez ere klasekideen erritmoan ibiltzeko. Hori egin beharko du lehenik. Eta bigarrenik, adi egon beharko du ea diskriminaziorik pairatzen ari den ala ez bere ezau-garriengatik. Baina, batez ere, beste ikasle baten moduan tratatu behar du, berdin-berdin. Eta hori astiro-astiro egingo dugu, eta ea suertea daukagun. Ze ikasleak 8 urte dituztenean adiskide baldin badira, baina 18 dituztenean ez baldin badira, hor problema bat daukagu, ez baita hibridazioa ematen ari. Espero dezagun hibridazio hori asitro-astiro eman dadila. Ez dago errezetarik.

Errezetarik ez, baina eskolan esku-hartze programak daude, eta beharrezko izango dira, ezta? Hamar ikasle immigraritik bederatz matrikulazio-epetik kanpo datoz, hori bideratzeko nolako programa behar da?

Matrikulazio-epetik kanpo eta eskolako hizkuntza ezagutu gabe etortzeak, arazoak dakartza, hori argi izan behar dugu. Baina aipatzen dituzun programak izan daitezela inplizituagoak esplizituagoak baino, hau da joan daitezela inkorporatuta lortu behar diren helburuak ahal den eta modu *tuneatue-nessan*, modurik ikusezinenean, lortzeko; bestela nabarmenki esplizitatzen badugu, markatzen ari gara egoera. Emakume modura gizonezkoena izan den lizentziatura bat egitean gura duzuna da besteak bezala tratatua izatea, ez hobeto ez txarrago, bada guretzat balio izan duten neurri, errezeta, kezka eta desadostasun berberak trasladatu beharko genituzke immigrazioa.

Irakasleak, oro har, gizarteko beste eremu batzuetako profesionalek baino harreman handiagoa dute immigrazioarekin. Sentsibilitate berezia behar ote dute gaiarekiko, baliabide

eta programa zehatzetatik haragoko sentsibilizazio-fisologiko bat, kasu?

Momentu honetan klase analisiak egiteko eskasia dagoela ikusten dut, Marxismoa analitiko aspaldi bota dugu, eta badirudi hemen muntatu dezakegula paradisia, eta ez, paradisia ez da edonon muntatzen, hau da, segregazio eskolarra ez da muntatzen immigrazioa etorri denean. Praktika pedagogikoak praktika politikoak eta klase praktikak dira. Gurasoak, eredu bat aukeratzen dutenean, azken finean, euren seme-alabak nolakoak izatea nahi duten aukeratzen ari dira. Zentro bat aukeratzen duzunean eredu, kontestua, lagunak eta estatusa aukeratzen ari zara, gutxienez. Eta estatus hori lotuta egongo da zuk dituzun baliabide kulturekin, ideologikoekin, ekonomikoekin edo identitarioekin.

Paradisia lortzen badugu hobeto, denak martxa berean joatea lortzen badugu hobeto, baina pentsatu behar dugu egoera ezberdinetatik abiatzen direnek halabeharrez igual bukatu behar dutela toki desberdinetan.

10 urterekin datorkizunean pertsona bat hizkuntza ez dakiena, satelite indibidual bat ez bada zeinak oso denbora laburrean lortzen duen taldeko punta izatea, logikoki, portzentajerik altuenak ez du lortuko hemen denbora daramaten neurria, eta hori igual onartu egin behar da fenomeno modura. Prozesu sozialak eta materialak aztertu behar dira eta ezinezkoa dena ezinezkoa da askotan. Eta igual immigrazio-prozesu batean datozen neska-mutikoak, hemen atzeratuak geratzen direnak, belaunaldi sakrifikatu bat izan behar dira. Erkatu dezagun horiek noraino heltzen diren hemen eta noraino hel zitezkeen jatorrizko gizartean eta, igual, jatorrizko gizartean ere ez ziren urrunago helduko sistemak ez zielako ematen baldintzarik, edo aukerarik ez zutelako, edo lan egin behar zutelako umetatik. Ezin dugu eskema homogeen bat bezala hartu. Saia gaitzen homogeneotasuna lortzen helmugan eta hor jar dezagun ahal den eta berdintasun-maila handiena lortzearen helburua, baina pentsatu behar dugu traiektoriak desberdinak izango direla. Eta fase batean, neurri batean, onartu behar dugu desberdintasun sozial gradu bat. Ze seguruenik neska-mutiko horien gurasoek onarturik daukate eurek sakrifikatuak direla, eta sakrifikatzen direla euren seme-alabengatik.

Immigrari guztiek, pertsona guztien moduan, helburu bat dute: euren seme-alabak hobeto bizi daitezela. Materia humanoa berdin da ze koloretakoa den eta nongoa den: bakoitzak nahi duena da bere hurrengoak modu duin batean bizi daitezela. Hala nahi izan dute bertako baseritarrek, Espainiatik etorritakoek eta orain munduko toki guztietatik datozenek.

Nik uste dut ahal den eta homogeneotasun handiena lortzea ipini behar dugula helburu modura, baina onartu egin behar dugu, eta ez porrot modura, prozesura hizkuntza barik, edo oinarriko hezkuntza-defizit batekin integratu direnak helmugara iristen direnean desberdintasun batzuk izango dituztela. Hori grabea litzateke kolektiboaren ezaugarri bat bilakatuko balitz hemen instalatuta daudenean, bertan jaio direnean eta hala ere desberdintasunak daudenean beti helmugan, nolabaiteko sabai gaindiezin batzuk daudelako. Hori da problematikoa. Ijitoen kasua, esate baterako: zoritxarrez uste dut ijitoen kasuan eta magrebtarren kasuan arazoa dagoela, emakumeak haustura bat egiten du talde kulturekin edo bestela, zoritxarrez, magrehtar eta ijito emakumeak oso mendeko egoeretan egongo dira beti, eta gizonak, analfabetoak. Hori ezin dugu permititu gizarte modura.

Gaur egun etxetik dakargun egoera sozioekonomikoak baldintzatzen du eskolaren amaieran izango dugun emaitza. Gaur arte denbora luzean eskolak aukera berdintasuna ematen die jatorrian ez zeukaten umeei, baina gaur egun, dagoeneko, ez da horrela.

Pobrezia eta pobrezia eskema soziokulturala transmititu egiten da generazioz generazio, eta pobreziatik irteteko eskema soziokulturala ere bai. Orain arte ez zen horrela gertatzen, eskola agente berdintzaile klabea izan da hezkuntzan, kontua da gaur egun berriro ere diferentzia handiagoa dela, berriro hasi baikara pobrezian erortzen eta desberdintasunak areagotzen doaz. Gizartearen eta instituzio politikoaren lana da lehenengo baliabideak ipintzea mundu guztia heldu dadin nahi lukeen lekuraino, eta bidean desbideratzen hasten bada norbait, sistema saiatu behar da hori berriro bideratzen.

Egiteko pedagogiko bezala eskolari

zer eska dakioke, migrazioen inguruko pedagogiari dagokionez? Eta zer baliabide eman behar zaizkio?

Batetik, magisterio-eskoletan egon beharko litzateke formazio bat aniztasunean eta aniztasunaren tratamenduan, eta aniztasunaren tratamendu legalean. Gauza asko galarazi nahi dira legez ezin direnak, esaterako, zapia.

Eta gero, aniztasunaren ulerkeran txosten oso inportante bat behar dugu, Quebecen egindako Bouchard Taylor txostenaren parekoa. Debate sozial inportantea planteatzen du txosten horrek, aniztasuna nola tratatu behar dugun estatu bat dagoenean eta gutxiengo nazional bat garenean, eta, era berean, etorkinak daudenean. Horrelako txosten batekin jakingo genuke zer den eskagarria, zeintzuk izango lirakeen limiteak, eta zeintzuk diren erantzun beharreko eskaerak.

Bigarrenik, argi edukirik euskarak ez duela edukiko etsairik gainontzeko hizkuntzetatik, baizik eta gaztelania eta ingeletik etorriko zaiola mehatxua, eskaera dagoenean eta baldintza batzuetan, zenbait hizkuntzaren irakaskuntza planteatuko nuke.

Eta sartuko nuke, baita ere, jendea eskandalizatuko duen arren, erlijioaren gaia berriro eskolan, erreflexio modura, errespetuoso izanda bakoitzaren sinesmenekin. Erlijioak hartzen duen dimentsioa ulertu behar dugu, ezin dugu munduan erlijiorik ez balego bezala bizi, distantzia hori Europako anomalia bat besterik ez da.

Eta ez nintzateke hainbeste larrituko eskoletan dauden etorkin-kopuruez. Ez nuke kopuru bat gaindituta problema kontsideratuko etorkinen presentzia, ze ez dugu problema kontsideratzen beste eskola batzuetan dauden pobre kopurua, eta saiatzen gara horiei ahal diren baliabide onenak ematen. Ni kezkatzen nau desagertzeaz zeuden A eredu kolegio batzuetan, non irakasleak erreta dauden, immigrariak almatzen modura sartzeak: hori porroterako bidea zabaltzea da. Auzo immigrari batean immigrariak egoteak, ordea, ez nau kezkatzen. Sartu eskola horietan baliabide gehiago, eta proiektu pedagogiko bat duen jendea. Arazoa da eredu horrek legearekin egiten duela topo. Eta nik hori boluntaritate handiagoa eskatuko nuke, irakasle batzuek gura badute proiektu baten izenean nonbaitera joan, gauzak egiteko aukera izan dezatela.

ESPERIENTZIAK

ALTZAGA IKASTOLA

GU BAGOAZ... URRIAK 12, ALTZAGA ZABALIK



Gu bagoaz... Hori izan zen urriaren 12an ikastolara etortzeko gonbidapena luzatzeko erabili genuen leloa. Argi genuen. Eusko Jaurlaritzak inposatutako egutegian gorritz agertu arren, euskaldunok ez dugu egun horretan zer ospatu. Ikastolako egutegian, egun hori gure hezkuntza-proiektuarekin bat datorren martxoak 8a gatik ordezkatzeari onartu zen klaustroan zein OOGn, baina lege-arazoak direla medio ezin izan genuen gure erabakia bete. Horre-

**Nerea Olaziregi
eta Leire Saez**

Altzaga
Ikastolako
irakasleak

gatik, oztopoen gainetik, beste bide bat bilatu genuen. Egutegi ofizialetik kanpo, ikastolako ateari hezkuntza-komunitate osoari ireki genizkion eta amesten dugun ikastola bilakatu genuen egun horretan Altzaga. 70 haur, 60 familia, 15 irakasle, jantokiko 10 hezitzaile, Kalezulo gaztetxeko 20 gazte eta hainbat ikasle ohi elkartu ginen Bekoako patioan 11:00etatik 13:00etara.

Emozioz eta ilusioz betetako eguna izan zen, magikoa hein batean; elkar-lana eta komunitateak sortzen duen



energia berezia usaindu eta dastatu egiten baitziren. Familiak etorri baino ordu eta erdi arinago, tailerrak dinamizatu behar genituen irakasle, hezitzaile eta gazteok bildu ginen, nor bere ardurapean egongo zen tailerrerako materiala eta espazioa prestatzeko. Mugimendu handiko uneak izan ziren, hunkigarriak, eta proiektu komun batek sortzen dituen pertsonen arteko hari ikusezinak erraz ikusten ziren, aurretik elkar ezagutzen ez genuen pertsonen artekoak ere. Gogoia, ausardia, prestutasuna eta elkarrekiko laguntza arnastu egiten ziren.

Bederatzi gunetan banatu genuen espazioa: *Gure ametsetako ikastola* hiru dimentsiotan (birziklatutako materialekin maketak, eraikuntzak...); *Aurpegiak margotu* (Ama lurra, Galtzagorri, Ortzi, Maritxu teilatuko, Mari, Akerbeltz...); *Esperimentazio-txokoa* (irina, lurra, ura, arrautzontziak, intxaurreak, egurrezko piezak...); *Irakurketa-txokoa* (Altzagako eta Euskal Herriko historia, bestelako ereduak zabaltzen dituzten ipuinak, urtekariak, liburuak...); *Ortu ekologikoa berpiztu* (ekainetik zaindu gabeko ortua martxan jarri); *Ametsen txokoa* hizkiz eta irudiz (graffitiak

eta oihalezko horma-irudia –artilez, zintaz, makilekin, errotuladoretz...–); *Sukaldaritza-tailerra* (umeekin batera jaki goxo eta osasuntsuak prestatu eta jateko); *Txalaparta-tailerra* eta oreka lantzeko *Slackline soka*.

Adin askotako eta mila koloretako pertsonak elkartu ginen giro ezin hobean, gure aniztasunaren eta aberastasunaren adierazle. Tailer batetik bestera, elkarrengandik eta elkarrekin ikasiz, komunitateaz gozatuz eta beste edozein egoeratan pentsaezinak diren elkarrizketak eta konexioak sortuz. Pantxiketa tximeleta ere, gure euskararen zaindaria, ikastolara etorri zen eguna gurekin gozatzerako. Gure ikastola publikoa benetan eremu publiko bilakatu zen.

Eta orain zer? Orain, erein dugun hazia zaindu eta ekimen honi jarraipena emateko zenbait aukera aztertzen hasita gaude. Martxoak 8a, adibidez, guretzat esanguratsua den eguna, parekidetasuna eta hezkidetzarekin lotutako egun ospagarria, “jai” bihurtuko dugu. Ikastolara lanera joan arren, inoiz baino bereziagoa, parte-hartzaileagoa eta sorpresaz bete bilakatzeko asmoa dugu egun hori. Ildo beretik, datorren urteko urriaren 12rako ideiak biltzen hasi

gara eta beste jai arrotzen egunetan egin genezakeenaz pentsatzen.

Bai, *Altzagan bagoaz*. Bagoaz LOMCEtik, HEZIBERRItik eta metodologia zaharkituetatik. Duela hiru ikasturte gure metodologiaren inguruan hausnartzen hasi ginen eta dagoeneko *sozio-konstruktibismoan* oinarrituta, proiektu bidezko metodologiaren aldeko hautua egin dugu. Testu liburuetatik eta etxerako lanetatik aldentzen hasi gara dagoeneko maila guztietan, eta emozioak, aniztasuna eta hezkidetzaren gure eguneroko lanaren ardatz bilakatu dira.

Eta batez ere *Altzagan bagoaz aurrera*. Urrats txiki baina sendoak eta ausartak emanez. Ezinak zalantzan jarriz, elkarlanean aurrera. Ekimenari eutsiz, protesta eta irudikatzeetik haratago, bidea eginez. Indarrez jantzitako oinetako mingarriak erantzi eta oinutsik geure bideari ekin diogu. Altzaga aske bat nahi dugulako. Txikitetasunetik handitasunera. Ametsetatik errealitatera.

Zorionak Altzaga!

Zorionak Erandio!

Bideoa ikusgai:

<http://erandiokoaltzagaikastola.blogspot.com.es/>

EKARPENAK 1

GORPUTZ HEZKUNTZAKO V. TOPAKETEN KRONIKA

Jarduera fisikoa, hezkuntzaren motorra

2016ko ekainaren 29an, Gorputz Hezkuntzako V. Topaketa egin zen lurretan. Urtetik urtera arrakasta handiagoa duen topaketa horretan, arloko 140 irakasletik gora elkartu ziren.

Berritzegune Nagusiko Gorputz Hezkuntzako (GH) Aholkulariak, Joseba Cantalejok, eman zion hasiera eta bukaera topaketari. Webgune berriaren aurkezpena egin zuen (www.gorputzheziketa.hezkuntza.net), eta sarrera egin zion eguneko hitzaldi nagusiari. Luis Larrañaga Piztik Bartzelonako Laia Mestres Pastor aurkeztu zuen. Gorputz Heziketan lizentziaduna da Mestres, eta zenbait master eginak ditu hezkuntza emozionalean, psikologia-neurozientzian eta herritartasun eta balioetan. Unibertsitatean laguntzen du, neurozientziaren ikuspegitik, eta Irene Pellicerrekin elkarlanean ari da, ariketa fisikoa egiteak dituen onurak aztertzen eta bultzatzen.

Laia Mestres Pastor

Duela bi urteko topaketetan, gurekin



Laia Mestres Pastor hitzaldia ematen.

izan genuen, beste aditu batekin batera, Irene Pellicerrekin. “Escuelas que se mueven” proiektuan murgilduta dago Mestres, eta mezu hauxe zabaldu zuen bere hitzaldian: **Neurozientzia + Gorputz Heziketa = Etor-kizuneko Eskolak**. Jarduera fisikoa hezkuntzaren motorra izan daitekeela esan zuen argi eta garbi. Honela ulertzen du hezkuntza Bartzelonako irakasleak: “Hezkuntzaren ardatza ikaslea erabakiak hartzeko hezte da, ahalik eta arrakasta handiena lor dezan”.

Neurozientziari heldu zion, jarduera fisikoa duen garrantzia azaltzeko. “Garunak egiten ez duena edota era-

biltzen ez duena kendu edo ezabatu egiten du. Cotman Ratey Sourak dio garunaren zati bat mugimenduari lotuta dagoela, eta, gizakiak ariketa fisikorik egin ezean, zati hori ‘murtua edo kimatua’ izango dela, edo izan daitekeela”. Horren ondorioz, ariketa fisikorik egiten ez duen pertsona bati arazo kognitiboak askatzea gehiago kostatuko zaiola azaldu zuen Mestresek.

Gorputz Hezkuntzak bere helburuak ditu, eta garrantzitsua da bere horretan. Baina, horretaz gain, curriculumeko beste arloetarako tresna garrantzitsu bihurtu dela gaineratu zuen Mestresek. Ariketa fisikoa egin



Idiazabalgo Aita Iparragirre eskolako ikasleak.

ondoren, ikasteko jarrera hobea izaten dela ziurtatu zuen.

- ZER EGITEN DU GORPUTZ-HEZKUNTZAK GARUNAREN MESEDETAN?
- ZER EGITEN DU GARUNAK GORPUTZ-HEZKUNTZAREN MESEDETAN?

“Lekualdatu eta mugitu beharrak ekarri du garunaren sorrera”. Horren adibide gisa, aszidia ur-animalia aipatu zuen irakasleak: bizitzeko eta itsasteko leku bila ibiltzen da animalia hori. Leku hori aurkitu duenean eta han ezartzen denean, jan egiten du bere garuna. Gizakiaren historia mugimenduarekin, jarduera fisikoarekin, erabat lotuta dagoela adierazi zuen adituak. “Gurera etorri, gizarte sedentarioa gizarte gaixoagoa dela baieztatu genezake, sedentarismoak gaixotasun gehiago ekartzen baititu”.

Mugimenduak garuna pizten du, eta hainbat substantzia jariatzen dira hor; horien artean dago faktore neurotrofikoak edo BDNF proteina (Brain-Derived Neurotrophic Factor). Hiru eremutan eragiten du proteina horrek: neurogenesian — gongoil

basalaren eta hipokanpoaren bolumen handitzen du, eta ikaskuntzan laguntzen du —; kapilarretan — odol jariora areagotzen da, eta, horren ondorioz, garunak jarduera handiagoa izan dezake —, eta sinapsian — neuronen arteko lotura ahalbidetzen du —. Horrela, Mestresek garbi utzi nahi izan zuen ariketa fisikoak egiteak positiboki eragiten duela ikaskuntza-prozesuan eta oroimenean.

Gure nerbio-sistema eta garuna plastikoak direla egiazatu da; irakasleak azaldu zuenez, moldagarriak direla esan nahi du horrek. Baina nola eragin dezakegu burmuinean? “Mugimenduaren bitartez. Garuna etengabe eraldatzen da, eta, beraz, ez dugu garun bera bi aldiz erabiltzen. Garuna aldatu egiten da estimulu bakoitzarekin; neurona-sare berriak sortzen dira, eta zeudenak eraldatu egiten dira. Horiexek dira ikaskuntzaren eta oroimenaren arduradunak”. *Hebb-en legearen bidez azaldu zuen hizlariak bere adierazpena:*

Estimulua → neurona multzoak aktibatzen ditu → konexio iraunkorrak sortzen ditu → neuronen sarea sortzen du.

Beraz, “gizaki libre” bilakatzen gara biharko egunean gure garuna nolakoa izango den erabakitzeke, Mestresek azaldu zuenez. “*Ni horrelakoa naiz... pentsatzen duenak badu iratzartzeko garaia; garuna plastikoa da, eta denok daukagu hobetu eta ikasteko aukera!*”.

Jarduera fisikoak ikaskuntza-prozesuan arazoak ekar ditzaketen beste faktore batzuei aurre egiten ere laguntzen duela azaldu zuen Mestresek, John J. Ratey autoreari erreferentzia eginez. Jarduera fisikoak arreta-gabezia duten haurrei lagun diezaieke, eta arreta-gabezia hori tratatzeko erabiltzen diren produktuak ordezkatu ditzake, edo, gutxienez, eragin berdintsua lor dezake; horixe azaldu zuen.

Ariketa fisikoak neurotransmisioan ere laguntzen du. “Batetik, prozesu kognitiboak eraldatzen ditu, noradrenalina jariatzen baita, eta adi egoten laguntzen du. Bestetik, ikaskuntzarako beharrezkoa den aurretiko jarrera hobetzen laguntzen du; dopamina (motibazioan eragiten du) eta endorfina (ongizateari mesede egiten dio) jariatzen ditu, eta lagungarria da hori ikaskuntzarako behar

EKARPENAK 1: GORPUTZ HEZKUNTZAKO V. TOPAKETEN KRONIKA

Ariketa kardiobaskular arina:	Intentsitate handiko ariketa kardiobaskularra:	Gihar-erresistentziako ariketak:
Oroimenarekin, atentzioarekin eta ikaskuntza-prozesuarekin lotutako funtzio kognitiboak hobetzen ditu, eta ikaskuntza-prozesuaren aurreko jarrera afektiboa hobetzen laguntzen du.	Informazioa prozesatzen eta ikasitakoa gordetzen eragina duten funtzio kognitiboak hobetzen ditu.	Ikaskuntza- eta oroimen-prozesuetan laguntzen dute.

diren jarrera kognitibo eta afektiboetarako”. Fredikson-en hitzak ekarri zituen ariketa fisikoak zirraretan duen eragina azaltzeko. “Autore horrek dio jarduera fisikoa egiten denean zirrara positiboak izaten direla eta, horrela, gure antolamendu eta errendimendu kognitiboa hobetzen dela. Eraginkorragoak dira hartzen ditugun erabakiak, modu globalean, sakonago eta malgutasun handiagoarekin pentsatzen dugulako”. Eta; Mestresek azaldu zuenez, horrek guztiak baliabide gehiago izatea ahalbidetzen digu.

“Ariketa fisikoak eta zirrara positiboak ‘zabaldu’ egiten gaituzte”:

Zirrara positiboak → Antolamendu kognitiboa (irekia, malgua, eraginkorra, sortzailea) → baliabideak ematen dizkigu (porrotari aurre egiteko, beldurra gainditzeko eta erronka berriei ekiteko).

Ariketa fisikoa

Ezagunak dira ariketa fisikoa egiteak dakartzan onura asko: zirrarak kudeatzen laguntzen du, eta arretari eusten, distrakzioei kasu ez egiten, nork bere burua kontrolatzen, etab. “Daten, Cheng eta Peressutti autoreek jarduera fisikoa praktikatzek bihotz-aldakortasuna handitzea daka-

rrera diote, eta pertsonaren ongizateari mesede egiten diola horrek, batik bat, bestelako estrategiekin osatuz gero (erlaxazio-ariketak, arnasketa-ariketak, meditazioa, giza harreman arrakastatsua eta maitekorrak lantzea...). Exekuzio-funtzio horien guztien arduraduna kopeta aurreko kortexa dela azaldu zuen adituak. “Ariketa fisikoa egiten duen gizakiak neurobabesleen abantailak izango ditu. Eta, unean uneko ongizateaz gain, mesede egingo dio epe luze-
ra”. Adibidez, 15-19 urte bitartean jarduera fisikoa era sistematikoan eta etenik gabe egin duen pertsona batek pentsamendu logiko-matematiko eta hizkuntza-ulermen hobeak izango ditu, ariketarik egin izan ez balu baino. Gainera, gaitasun mental hobeak izango du 50 urte geroago, zahartzaro-prozesurako.

Gure gorputza, berez, jarduera fisiko ugari egiteko diseinatua dagoela azaldu zuen Mestresek, eta horregatik lortzen ditugula hainbeste hobekuntza. Horrez gain, oroimen- eta ikaskuntza-prozesuetan duen eraginaz eta onuraz jabetzen bagara, GH arloak hezkuntza-sisteman duen pertzepzio orokorra aldatuko dugu. Mestresek hezkuntza-sistemaren barruan ditugun lau egiteko nagu-

siak nabarmendu zituen: “Batetik, GH arloko ordu gehiago sartu behar dira eskoletan. Bigarrenik, GH arloa estrategikoki esanguratsuak diren tokietan kokatu behar da, ordutegien barnean. Hirugarrenik, ezagutza horiek aditzera eman behar zaizkio hezkuntza-komunitate osoari. Eta, azkenik, ekintza fisikoetarako kultura globala sortu behar dugu”.

Zer egiten du eta zer egin dezake garunak GH-ren mesedetan?

Garunaren funtzionamendua Gorputz Hezkuntzako eskoletan txertatzea proposatu zuen Laia Mestres Pastorek. Horretarako, bost eremu hauek hartu beharko genituzke kontuan:

- **“Errefortzu positiboak irakatsi egiten du”.**

Edozein gaitasun motorrek aurrera egiten du, egindako mugimenduen ondorio positiboak dituztenean; egin nahi dena lortzen denean, alegia. Nahi genuen helburua lortzean, dopamina neurotransmisorea jariatzen da, mugimenduarekin zerikusia duen gure garuneko zonaldean. Dopaminaren bitartez indartutako neurona horiek — mugimendua egitea ahalbidetu dutenak, eta ez beste batzuk — berriro hautatuak izateko aukera han-

Jakinduria	Adorea	Gizatasuna eta maitasuna	Justizia	Neurritasuna	Transzendentzia
- Jakin-mina - Gizatasuna eta maitasuna - Zentzutasuna - Asmamena - Inteligentzia soziala - Ikuspegia	- Ausardia - Iraunkortasuna - Zintzotasuna	- Ontasuna - Maitasuna	- Inpartzialtasuna - Lidergoa	- Norberaren buruaren kontrola - Zuhurtzia - Gizatasuna	- Edertasunaz gozatzea - Esker ona - Itxaropena - Espiritualtasuna - Barkamena - Umorea - Gogoberotasuna



Idiazabalgo Aita Iparragirre eskolako ikasleak.

diagoa izango dute mugimendu bera egitea eskatzen denean, eta exekuzioa arrakastatsua izatea eragingo dute.

- **Imitazioz ikastea.**

Mestresen ispilu-neuronen garrantzia aipatu zuen imitazioaren bitartez egiten diren ikaskuntzez hitz egitekoan. Neurona horiek guztiz enpatikoak dira: besteek egiten dutena imitatzen dute. Horixe da ikasteko prozesurik ohikoena. “Beraz, ikusteko aukerak eskaini behar dizkiegu ikasleei. Eta, nola ez, ikustera, behatzera eta imitatzera bultzatu behar ditugu ikasleak”. Esperimentu txiki batekin erakutsi zuen Mestresen imitazioaren bitartez egiten den ikaskuntza oso eraginkorra dela: Topaketan bildutako erdiei idatziz azaldu zizkien egin beharreko mugimenduak, oso modu teknikoan; beste taldeak, berriz, hizlaria bera imitatzu egin behar zituzten mugimendu horiek berak. Eta, noski, azkarrago eta eraginkortasun handiagoz egin zituzten imitazio-prozeduraren bitartez aritu zirenek. Argi utzi zuen horrela imitazioaren bitartez egiten den ikaskuntza oro oso eraginkorra dela. “Pertsonok jokabideak, balioak, sentimenduak eta iritziak (sinesmenak) agertzen ditugu. Eredua gara gure ikasleentzat, eta egiten duguna eta adierazten duguna transmititzen diegu”.

Zer eman dezakegun edota zer transmititzen dugun jakiteko, Seligman-en testa aurkeztu zuen ondoren. Test hori norberak osa dezake, bere buruaz duen ikuspegitik abiatuta, edota beste batek ere egin dezake, norberari buruz duen ikuspegia aintzat hartuta. Test horretan, indargune unibertsalak aipatzen dira, sei multzotan banatuta. Indargune bakoitzari kalifikazio bat eman behar zaio, eta, bukatu ostean, kalifikazio altuena duten lau hitzak hartu behar dira. Lau hitz horiek islatzen dute bakoitzak besteengan iradokitzen duena.

Gure inguruan harreman gehien norekin dugun aintzat hartu, eta gertuen ditugun bost pertsona horien batez bestekoa garelako azaldu zuen hizlariak.

- **“Irudikatzea entrenatzea da”.**

Edozein bizipen dugunean, portaera bat, pentsamendu bat eta zirrara bat sortzen dira. Horren ondorioz, neuronon arteko sare berri bat sortzen da garunean bizipenetatik, edo sortuta dagoen sare bat indartzen da. Mestresen datu bat eman zuen: egunean 60.000 pentsamendu inguru izaten ditu gizakiak, batzuk errealak eta beste batzuk asmatuak. Asmamenak edo imajinazioak esperientziak sortzen ditu, eta garun-egokitzapenak eragiten ditu, bizipen fisikotik pasatu

gabe. Esate baterako, eskaladako lehiaketetan, zailtasun-eskaladako bideak eskalatzen hasi aurretik, eskalatzailerak, artean lurrean daudelarik, pausoak gainditzeko egin beharreko mugimenduak irudikatzen hasten dira. Esperientzia errealak ez izanagatik, sare berriak sortzen dituzte era horretan kortexean.

- **Aldaketa, aukerak baliatuz.**

“Aldaketak eragin ditzakegu irakasle guztiok, eta, aldaketak gerta daitezten, aukerak eskaini behar dizkiegu ikasleei”. Aldaketa gerta dadin, oso garrantzitsua da kopeta aurreko kortexa aktibatuta izatea, eta ez amigdala, neurozientziaren arloko adituak azaldu zenez: “Kopeta aurreko kortexaren eskuinaldea orainarekin lotuta dago, zirrara negatiboekin, beldurrarekin, kontrolarekin, ekintza-gabeziarekin... Eta, aktibatuta badago, zaila da aldaketak egitea. Aldiz, kopeta aurreko kortexaren ezkerrekin, geroarekin, esperantzarekin, aukerarekin eta ekintzarekin du zerikusia, eta, aktibatuta badago, errazago egiten dira aldaketak”.

- **“Sinestea sortzea da”.**

Zerbait gertatu aurretik, gerta daitekeen horren inguruko iragarpen bat egina du garunak. Roger Bannister atleta britaniarraren adibidea

EKARPENAK 1: GORPUTZ HEZKUNTZAKO V. TOPAKETEN KRONIKA

jarri zuen Mestresek: “Garai hartan (1954an), milia bat (1,6 km) lau minutuan baino gutxiagoan egiten saiatzeak heriotza ekar zezakeela uste zen; haatik, Bannister gogor entrenatu zen, eta saiakera egin zuen kazetari eta ikusleen aurrean (horiek guztiak ez ziren marka gainditzen zuela ikustera joan, nola hil behar zuen ikustera baizik). Eta erronka lortu zuen, 3 minutu eta 59 segundoko denbora-rekin, eta sinestea sortzea eta lortzea dela erakutsi zuen. Izan ere, Antonio Rosenthal-ek zioenez, eragina dugu besteak izango diren horretan; hau da, guk besteak nolakoak diren pentsatzen dugunean, iritzi horrek eragina du bestearen izatean”.

Hausnarketa gisa, Gorputz Heziketako irakasleok eskolara zer jarra eta helbururekin joan beharko genukeen azaldu zuen Mestresek: batetik, inspirazioa edo argitasuna lortzera; bigarrenik, osasunaren eta egoera onaren garrantzia irakastera; hirugarrenik, garunak aldatzera, eta, azkenik, jarduera fisikoa maita dezaten *kutsatzera*.

Lehen Hezkuntzarako GHko programazioa:

GHko irakasle talde batek Iraleko R-400 programaren bitartez egindako lanaren berri eman zuten *Piztik* eta

Jabi Gorbeak. Euskaraz egindako programazio bateratu baten beharra 2007tik dator, hain zuzen ere. Lan hori hasieran Sohat taldeak hartu zuen bere gain, eta eredu bateratu bat sortu zuen, unitateak berdin samar egiteko; gero, mintegietan eta hainbat pertsonaren artean zabaldu zen, eta 36 unitate diseinatzea lortu zen. Baina, nahiz eta saiatu, ez zegoen egindako lanean ez bateratasunik, ez eta kohesiorik ere; eta, azkenean, programazioa R-400 programaren bitartez ari dela gauzatzen adierazi zuten.

Heziberri curriculuma oinarri gisa hartu dute programazioa osatzeko; lehendik sortuta zeuden unitate didaktikoak eraberritu dituzte, edota berriak sortu dituzte. Heziberrik, lehen aldiz EAEko hezkuntza-curriculum batean, gaitasun motorra jasotzen du oinarrizko gaitasun gisa. Pedagogikoki, Alfredo Larrazen eta EHUren laguntza izan dute egileek. Larrazek proposaturiko ekintza-arloetan oinarritu dira edukiak sailkatzeko garaian. Unitate bakoitzak arlo nagusi bat du ardatz:

1. Bakarkako ekintzak.
2. Buruz buruzko ekintzak.
3. Elkarlaneko ekintzak, aurkaritzarik gabekoak.
4. Elkarlaneko ekintzak, aurkari-

tzarekin.

5. Ziurgabetasun-ingurunekekin.
6. Adierazpen- eta arte-ekintzak.

Unitate didaktiko bakoitzak honako alderdi hauek guztiak hartu ditu kontuan: ebaluazioa, ekintza motorrak, eskaner emozionala, ikasleen aurre-ezagutzak abiapuntutzat hartu beharra, ikasteko denbora ikasleek markatua... Guzti hemezortzi unitate didaktiko diseinatu dituzte, maila bakoitzerako sei (LHko 4., 5. eta 6. mailak). “Orientazio-lasterketak” unitate didaktikoa azaldu zuten, egindako programazio osoaren erakusgarri gisa. Falta diren hemezortzi unitate didaktikoak datorren ikasturtean bukatzen ahaleginduko dira, Iraleko R400 deialdi berriaren barnean.

Jarduera fisikoa eta kirol egokituak:

Xabier Leizeak jarduera fisikoaren eta kirol egokituaren inguruan hitz egin zuen, Gaituz Sport Fundazioaren izenean. Fundazioak hezkuntzan, udal-kiroletan, osasunaren esparruan, eguneko zentroetan eta egoitzetan, ikerketan, prestakuntzan, sentsibilizazioan eta hedapenean... lan egiten du.

GHn inklusiorako jarraitu beharreko estrategiak aipatu zituen:

- Jarduera guztiak denei zuzendu behar zaizkie.
- Espazio berean.
- Antolamendua eta irakaskuntza berriro pentsatu behar dira.
- Aniztasunarekin bizi behar dugu.
- *Integrazio* hitza gainditu behar da.
- *Inklusioa* ikasle guztiei arreta eta erantzuna ematea da.
- Eskola da komunitatea sortzeko motorra.
- Laguntza-sareak behar dira irakasleentzat.
- Ikaskuntzari eman behar zaio lehenetsia, ikasleen desberdintasunen gainetik.

Baina nola egin? Hori da benetako erronka gaur egun. Leizeak hiru etapa bereizi zituen: bata, informazioa; bigarrena, analisia; eta, hirugarrena, egokitzapena.



Idiazabalgo Aita Iparragirre eskolako ikasleak.



Xabier TAPIA



Anna LUNA



Alvaro BEÑARAN

ARRETA GOIZTIARRA jardunaldiak

Azaroaren 4an BILBOn eta 5ean DONOSTIAN

Urtero bezala, aurtengo udazkenean ere, Haur Hezkuntzakoentzako jardunaldiak antolatuko ditu *hik hasi*-k. "Arreta goiztiarra" gaia hartuta, hainbat arlo jorratuko dira.

- Xabier TAPIA psikologo klinikoa.
- Anna LUNA Kataluniako psikomotrizista eta prebentzioan aditua.
- Alvaro BEÑARAN pedagogia terapeutikoan lizentziatua eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea.

Informazio osoa eta izena emateko aukera, urrian,

www.hikhasi.eus helbidean

EKARPENAK 2

ESTRESA ETA ANTSIETATEA

Estresari eta antsietateari pilularik gabe aurre egiten

Aiala ez dabil alai azkenaldian. Jarduera askotan dabil sartuta; lanean, masterrean, familian eta beste hainbat kontutan jarri behar du arreta, eta arnasestuka doa beti leku guztietara. Triste sentitzen da, nekatuta, eta, batzuetan, sentsazio desatseginak izaten ditu gorputzean ere, hala nola zorabioak, goragalea eta buruko mina. Horregatik, medikuarengana joan da, eta, antsietatea duelakoan, pilula batzuk eman dizkio, sintoma horiek guztiak gutxiagotzeko. Hala ere, ez da soluziorik onena haren zat. Aialak antsietatea du, estresak sortutako antsietatea, eta, psikologo eta psikiatra askok deskribatzen dutenez, XXI. mendeko izurritea da hori. Artikulu honetan zehar, gure kasu honen adierazten duen arazoa eta horri aurre egiteko estrategia osasuntsuak azalduko dira.

ESTRESA

Gehiegizko lanak, nagusiarekin harreman txarrak izateak, zarak, pentsamendu negatiboek, harreman afektibo ezegonkorrek, banaketek... estresa sortzen dute. Ingurunean gehiegizko eskakizun bat hautematen badugu, estresa paira dezakegu. Bizitzako gertaera txarrek estresa dakarte, baina baita gertaera onenak ere.

Adibidez, lanpostu hobe batera aldatzea ona bada ere, estresa ekar dezake. Hala ere, eragina izaten dute nortasunak eta arazoei aurre egiteko dugun moduak ere; hau da, egoera beraren aurrean, pertsona batzuek estresa izan dezakete, eta egoera hori bera lasai hartuko dute, agian, beste pertsona batzuek. Normalean, estresarekin batera, beste egoera emozional bat ere agertzen da: antsietatea [1].

ANTSIETATEA

Antsietateak, arrisku-sentimendua, tentsioa eta sufrimendua ditu ezaugarri. Antsietatean izaten den beldurra arriskuari dagokiona baino handiagoa izaten da normalean. Alderdi subjektibo eta fisiologiko desatseginak dakartzen erantzun emozional bat da antsietatea, eta, normalean, desegokiak diren jokabideekin lotzen da. Sintoma psikikoen artean, alerta-sentipena, beldur-sentimendua, ardura, ermetasun handia, egonezina, larritasuna, neke-sentsazioa, kontzentratzeko zailtasuna, oroimenaren nahasketak, loaren nahasketak, suminkortasuna, gutxiagotasun-sentimenduak, apatia, umore-aldaketak edo umore depresiboa ager daitezke.

Sintoma fisikoen artean, berriz, ezinegona, izerdia, dardarak, bihotz-

**Naiara Ozamiz
Etxebarria
eta Miren
Agurtzane
Ortiz Jauregi**

**EHUko
Medikuntza
eta Erizaintza
Fakultateko
psikiatria-
eremuko
irakasleak**



taupada azkarrak, arnasa falta den sentsazioa, nekea, buruko mina, zurbiltzea edo gorritasuna, zorabioak, tikak, aho sikua, goragalea, nahasketa gastrointestinalak edo sintoma genitourinarioak gertatzen dira.

Antsietateak egoera batzuen aurrean erreakzionatzeko lagundu dezake egunerokotasunean. Hala ere, gizarte modernoan, antsietatea modu patologikoan garatu da kasu batzuetan, eta antsietate-nahasteak agertzen dira hainbat kasutan, eta ondorio negatiboak dituzte sufritzen duten pazienteengan. Antsietate-nahasteak, berriz, hainbat modutara ager daitezke, hala nola larritasun-krisi baten bidez (panic attac), agorafobiaren bidez, fobia espezifiko baten bidez, fobia sozialaren bidez edo nahaste obsesibo-kompulsibo moduan.

Aialak ez du antsietate patologikoaren larritasunik, baina baditu antsietatearen hainbat sintoma, eta garrantzitsua litzateke horiei aurre egitea, gaixotasun larri bat pairatu baino lehen.

ANTSIETATEARI AURRE EGINEZ

Argi dago, beraz, antsietateari aurre egin behar diogula, kalterik sor ez dezan. Gure kasuan, medikuarengana joan da Aiala, eta pilula batzuk eman dizkio, arazo horri aurre egiteko.

Hala ere, ez litzateke arazoari aurre egiteko modurik egokiena, pilulek mendekotasuna sortzen baitute, eta osasuntsuagoa baita antsietateari aurre egiteko teknika batzuk ikastea. Erlaxazio-teknikek, *biofeedback*-teknikek eta teknika kognitiboek gaixotasun horri aurre egiten lagundu dezakete.

• Erlaxazio-teknikak

Erlaxazioaren helburu nagusia antsietatearen sintomak arintzea da. Hiru mailatan agertzen da erlaxazioa. Alde batetik, maila fisiologikoan, non, tentsio muskularra, arnasketaren maiztasuna eta bihotz-erritmoa jaisten diren; portaerazkoan, non aurpegiera erlaxatua eta mugimendu kontrolatu eta lasaiak agertzen diren; eta kognitiboan, non lasaitasun-pentsamenduak, ongizaterenak, egoera lasaien irudiak eta sentimendu gozoen pertzepzioa sortzen diren. Erlaxazio mota asko ditugu gure inguruan. Honako hauek daude, gehien erabiltzen direnen artean: arnasketa abdominala edo sabel-arnasketa, Jacobsonen erlaxazioa eta Schultzen erlaxazioa.

Arnasketa abdominala erlaxatzeko teknika indartsu bat da; energia areagotzen du, eta onurak ditu osasunean. Jacobsonen erlaxa-

zioaren bitartez, gorputzeko muskuluak uzkuritu eta erlaxatu egiten dira; zentzu muskularra ikasten da horrela, eta borondatezko muskuluen kontrola lortzen da. Barneko lasaitasun-egoera sakona lortzen da, eta gertatzen diren sentsazioetan jartzen da arreta. Schultzen erlaxazioarekin, askotariko sentipenak sentitzen dira gorputzeko hainbat ataletan. Pisua, beroa, arnasketa lasaia eta bihotz-taupaden lasaitasuna sentitzen dira, eta gorputzaren erlaxazioa lortzen da. Erlaxazioan erabiltzeko tresna garrantzitsu bat da musika ere. Erlaxatzeko berezko elementu gisa erabil daiteke, edota, erlaxazio-teknika batean laguntzeko ere erabil daiteke. Musikak arreta desbideratzen laguntzen digu; antsietate- eta estres-mailak jaits ditzake, eta gorputzari endorfinak sortzen laguntzen dio. Musikak pertsona erlaxatzen du, eta, bihotz-taupadak, arnasketa eta odol-presioa jaisten ditu. Normalean, musika lasaia izaten da erlaxatzeko onena, baina pertsona bakoitzak sentsazio onak ematen dizkion musika bilatu behar du [2].

Beraz, asko dira erlaxazio motak, eta horien bitartez lortzen diren onurak. Besteak beste, berreskuratze fisiko eta mentala, zirraren kontrola eta estresaren prebentzioa.

“Argi dago antsietateari aurre egin behar diogula, kalterik sor ez dezan. Gure kasuan, medikuarengana joan da Aiala, eta pilula batzuk eman dizkio, arazo horri aurre egiteko. Hala ere, ez litzateke arazoari aurre egiteko modurik egokiena, pilulek mendekotasuna sortzen baitute, eta osasuntsuagoa baita antsietateari aurre egiteko teknika batzuk ikastea. Erlaxazio-teknikek, *biofeedback*-teknikek eta teknika kognitiboek gaixotasun horri aurre egiten lagundu dezakete”

• **Biofeedback-teknika**

Erlaxazioaz gain, badago antsietateari aurre egiteko teknika bat, batez ere AEBn erabiltzen dena. Biofeedback du izena teknika horrek, eta Blitz, Hoogstraten, Mulder, Haber eta Luninet-ek hasi zuten, 1970ean. Teknika horren bitartez, gure gorputzeko prozesuen kontrola lor daiteke. Biofeedback-teknikak gure egoera fisiologikoaren berri ematen digu, eta kontrolatzen eta aldatzen ikas dezakegu. Ordenagailuak gure bihotz-taupadei, arnasketari eta presio arterialari buruzko informazioa ematen digu, eta guk, irudiek ematen diguten feedbackaren bitartez, horiek kontrolatzen eta aldatzen ikas dezakegu. Horrela, erlaxazioa sendotu eta antsietatea arindu ditzakegu [3]. Adibidez, Aiala urduri jartzen denean, azkartu egiten zaio bihotz-taupaden erritmoa. Hori kontrolatzen ikasten badu eta antsietatea duen unean antsietate hori murrizten ikasten badu, egoera estresagarrietan bihotz-taupadak borondatez jaisten jakingo du, eta antsietatea murriztuko.

• **Psikoterapia kognitiboa**

Psikoterapia-mota ugari dago antsietateari aurre egiteko ere. Esaterako, terapia kognitiboa (Ellis eta Beck 1960). Terapia kognitiboen arabera, pentsamenduek zirrarak sorrarazten dituzte; adibidez, sentsazio negatiboak eragiten dituzte pentsamendu distorsionatuek. Errealitatea modu negatiboan hautematen duen pentsamendua da pentsamendu distorsionatua. Pentsamenduaren aldaketak zirraren aldaketa dakar, eta, pertsona batek gertakizun baten aurrean hobeto sentitu nahi badu, gertakizun hori interpretatzeko modua aldatu beharko du. Antsietatea duen pertsonak modu horretako pentsamenduak izan ditzake, eta, pentsamendu horiek aldatuz, aldaketa gerta daiteke bere zirraretan; horrela, antsietatea desagerraraz dezake [4].

Adibidez, Aialak horrenbesteko estresa duenez, askotan, umore txarrez hitz egiten dio jendeari. Eta, modu horretan hitz egiten duen bakoitzean, “ergela naiz” edo antzeko pentsamenduak datozkio burura. Ez da gauza bera “ergela naiz” motako pentsa-

mentu bat izatea, eta “nire jokabidea ergela izan da” pentsamendua izatea. Lehenengo kasuan, pentsamenduak zirrara negatiboak sor ditzake; bigarren kasuan, ordea, zirrara positiboak ekar ditzake. Horregatik, terapia kognitiboaren bitartez, Aialak bere pentsamenduak eta zirrarak aldatzen ikas dezake.

ONDORIOAK

Estresaren sintomek kalte handia ekar dezakete, eta, horregatik, garrantzitsua da horri aurre egiteko teknika ikastea, pilulak hartu baino lehen. Teknika horien bitartez, bizi-kalitatea hobetu dezakegu, eta antsietatea arinduko eta ongizatesentimendua indartuko dugu horrela. Estresari aurre egiteko, aipatutako teknikaz gain, badaude beste lagungarri batzuk ere; egunerokotasunean izan ditzakegun ohitura osasuntsuak, hain zuzen ere.

Horrelako egoerei aurre egiteko modurik onena positiboak izatea da, eta gure arreta alde negatiboetatik kentzea. Beste alde batetik, egunero kirola egiteak antsietatea eta depresioa gutxiagotzen ditu, umorea hobetzen du, eta, oro har, onura egiten dio osasun mentalari. Elikadura eta loa ere zaindu behar dira, osasunaren oinarri baitira. Eta, azkenik, barre egin behar da: kirola bezain terapeutikoa omen da. Barre egin dezagun geure buruaz eta bizitzako zailtasunen aurrean, egoera zailei aurre egiten lagunduko baitigu horrek.

Ez genuke Aiala sendatuko pilulen bitartez; haren arazoa estaliko genuke soilik. Orain arte aipatutako aholkuei jarraituz, berriz, Aiala alaiago litzateke; haren antsietatea arinduko genuke, eta bizi-kalitatea hobetuko.

BIBLIOGRAFIA

- [1] De Rivera, Luis. Los síndromes de estrés. Síntesis editoriala (2010).
- [2] Marizán, J.A. Relajación: vivir en paz y armonía. Crecem editoriala (2015).
- [3] Lehrer, Paul. History of Heart Rate Variability Biofeedback Research: A Personal and Scientific Voyage. Biofeedback (2013). 41. liburuxka, 3. edizioa, 88–97 or.
- [4] Lehrer, Paul; Woolfork, Robert; Sime, Wesley. Principles and practice of stress management. Hirugarren edizioa. The Guildford Press (2007).

Hazi Hezi

haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen diogunon
komunitatea

www.hikhasi.eus

GALDEIDAZU

PEDAGOGIA SISTEMIKOA OINARRI HARTURIK, ZER IRIZPIDE IZAN DITZAKEGU KONTUAN FAMILIEKIN BILERAK EGIN BEHAR DITUGUNEAN?

Galdera honi erantzun aurretik, garrantzitsua deritzot Pedagogia Sistemikoaren nondik norakoak azaltzeari, oso modu orokorrean bada ere, horrek ahalbidetuko baitu azaltzen ditugun irizpideen zentzua edo arrazoia ulertzea. Pedagogia, ongi dakigun moduan, hezkuntzako gertakariak aztertzen dituen zientzia da (paidos: haurra, gogo: gidatu). Sistemikoa, aldiz, sistemak bere barnean hartzen dituen litzateke. Sistemek baldintza bat dute beren barnean: sistema bateko kideek edo elementuek sistema bereko beste elementu edo kide batzuekin harremanetan egon behar dute. Beraz, helburu baterako antolatzen dira, eta interakzioan daude beraien artean. Pedagogia sistemikoa “ordenatik” abiatzen da, eta “ordena” du helburu.

Pedagogia sistemikoaz aritzean, hiru oinarri azpimarratuko genituzke, modu orokorrean: sistemetan diharduten hurrenkerak edo ordenak, behatzailearen jarrera ikusten duenaren aurrean eta testuinguruaren kokapena.

Bert Helingerren arabera, sistema guztietan berezkoak diren hurrenkerak edo ordena batzuk daude: pertenezia (nongo kide garen...), hierarkia-aintzinasuna (zer leku dugun sisteman) eta harremanaren arteko oreka. Nahiz



**LARRAITZ
MENDIZABAL HUITZI
HEZKUNTZAKO
AHOLKULARIA**



eta teoria hori psikologiatik abiatu den, eskola-sisteman aplikatzen hasi da, eta hortik dator pedagogia sistemikoa. Pedagogia sistemikoak berebiziko garrantzia ematen dio behatzailearen jarrerari (errealitateari behatzerakoan, bai eta dagoena eta ez dagoena aitortzeko unean, begirada konponbidean jartzeari, esaterako). Testuinguruak ere garrantzia du, eta, beraz, haurra ez da elementu bakartu moduan ikusiko, bere familiako kide gisa baizik.

Familia da haurra bizitzan kokatzen duen lehen sistema. Familian dugun kokapena funtsezko bihurtzen da beste sistemetan kokatzerakoan. Hor bizitakoaren gainean eraikitzen dugu ezagutza eta mundu-ikuskerak. Ordenaren iturri da familia, bai eta lehen sozializazio gunea ere. Familiako kideak dira gure bizitzarako erreferente nagusiak. Bizitzaren une batean, familiak beste sistema batekin harremanetan jartzen du haurra, eskolarekin, alegia. Haurrak familiatik eskolara datoz, eta familiako sinesmen, kultura, balio, ohitura bai eta unean uneko bizipenekin datoz gurera. Haurra eskolaratzearen helburu nagusia haren garapen pertsonal eta profesionala lortzea da familiarentzat. Eskolan, eskola-sistemearekin topo egiten dute, eta horrek haurraren garapena, edu-

kiak eta sozializazioa bermatzea du helburu. Irakaslea ere haren familia-sistemarekin heltzen da (hau da, haren balio, sinesmen eta unean uneko bizipenekin). Beraz, oso inportantea da –irakasleen aldetik behintzat– hiru sistema horien kontzientzia izatea, onarpenetik eta begirunetik nahiz epairik gabe begiratzea, helburutzat elkarlana hartuta.

Elkarlanean aritzeko, beharrezkoa da sistema bakoitzak bere markoa, konpetentziak, funtzioak, ardurak, hizkuntz konpetentzia... argi izatea.

Garrantzitsua da, era berean, argi izatea zer dagokion sistema bakoitzari eta zer ez, zein den bakoitzaren muga, bai eta eskola-sisteman bakoitzak zer ardura duen, eta, horren ondorioz, noraino hel daitekeen eta noraino ez.

Bi sistemek haurren ongizatea dute helburu, eta hori elkarlanaren eta onarpenaren bidez eta begirunez eginez gero, epairik gabe, konfidentziasunez eta intimitatea ziurtatuz, haurra edo ikaslea dugu beti indartzen.

Elkarrizketak dira bi sistema horiek elkartzen dituen gune edo espazio bakanetakoa, eta, beraz, garrantzi handia hartzen dute. Aukera ematen du elkarrekin hitz egin eta elkarlanean aritzeko, betiere, ikaslea abiapuntu harturik eta horren ongizatean eta zorientasunean eragiteko.

Beraz, pentsa genezakeen baino garrantzitsuagoa da elkarrizketa, eta alde zuzenetik ongi prestatu beharrezkoa.

Elkarrizketek hainbat helburu izan ditzakete, eta horrela izan ohi da. Harelere, kasu guztietan ikaslea begiratu behar dugu, haren hobe beharrez aritu, eta konponbide posibleak landu haren onerako.

Jardun horretan, arduradun guztiak txertatzea garrantzitsua izango da, eta kontuan hartuta egun dagoen familia-aniztasuna, saiatu beharko dugu aita eta ama, bi amak, bi aitak, ama edo aita bakarra edo dena delako arduraduna egon daitezen, eta elkarlanaren parte izan daitezen.

Elkarrizketak aurretiazko lanketa bat eskatzen du. Lehenik eta behin, argi izan behar dugu zein den elkarrizketaren helburua, eta presente eduki behar dugu hori une oro. Horrez gain,

elkarrizketan parte hartuko duten profesionalak argi izan behar dute zein den bakoitzaren funtzioa, eta betetzen duten funtzio horretatik haurraren behatzen duten horren inguruko komunikatza mugatu behar dute elkarrizketa horretan. Izan ere, profesionalak beren ardurapekoa ez den eremuren batean sartzeak beren arteko sistema ere ahuldu egin dezake, baita familiako autoritatea makaldu ere.

Espazioak ere badu eragina. Hori dela eta, espazio fisikoa zainduko dugu. Ere mugetan lasai eta konfidentziala behar dugu. Datozen guztientzat aulkiak jarriko ditugu. Komeni da helduen aulkiak izatea, helduen arteko elkarrizketa izango baita. Orduetara, giro atsegina eta sartu-irtenak ekiditea zainduko dugu.

Bilkura hasieran, hitza hartu eta aurkezpena egingo dugu, eta, gero, argiki azalduko dugu zein diren bilkuraren arrazoiak eta helburua. Ondoren, tarte bat irekiko dugu familian eta eskolan beraiek eta guk haurra nola ikusten dugun azaltzeko. Eta, une horretan, oso garrantzitsua da beraiei entzuteko jarrera izatea, eta aurreiritziak, epariak eta antzekoak ekiditea. Entzuten dugunak, esatea pentsatzen genuena aldatzera eramanez gaitzake, eta, beraz, funtsezkoa da onarpenetik eta begirunetik jardutea eta entzuteko prestutasuna izatea. Denok ahal duguna egiten dugula sineste izan behar da abiapuntua. Gu ez gara inor beste inor eparitzeko eta zer egin behar duen esateko. Familiak indartuz eta ahalduz, haurra edo ikaslea indartzen dugu.

Beraz, hau litzateke pedagogiko sistemako jarrera: lehenik eta behin, hurrenkeretako desordenak identifikatzen saiatuko gara. Inplikazio emozionala ekidin behar dugu. Adibidez, banaketa batean bagaude eta senarrarekin edo emaztearekin egoera gatazkatsua badugu, ezin dugu hori guraso horietan islatu. Begirada hor kokatzeak gure ikaslearekiko begirada lausotu egiten du, bileraren helburutik aldenduz. Horrek haurrekiko gure begirada ahultzen du, eta gure helburua ikaslearen gurasoak ahalik eta egokien barneratzea izango da beti, haurren hobe beharrez, haurrak ongizatean hazteko. Gure begirada

Haurrak familietatik eskolara datoz, eta familiako sinismen, kultura, balio, ohitura bai eta unean uneko bizipenekin datoz gurera. Haurra eskolaratzearen helburu nagusia bere garapen pertsonal eta profesionala lortzea da familiarentzat. Eskolan, eskola-sistemarekin topo egiten dute, eta horrek haurraren garapena, edukiak eta sozializazioa bermatzea du helburu. Irakaslea ere bere familia-sistemarekin heltzen da (hau da, bere balio, bizipen eta unean uneko bizipenekin). Beraz, oso inportantea da –irakasleen aldetik behintzat– hiru sistema horien kontzientzia izatea, onarpenetik eta begirunetik nahiz epairik gabe begiratzea, helburutzat elkarlana hartuta.

konponbidean jarri behar dugu, eta ez ika-mikan.

Elkarrizketa heldutik heldura egingo dugu, bakoitza bere sistemako autoritatea dela aitortzeko.

Elkarrizketa horietan, intimitatea errespetatu eta konfidentziasuna zainduko dugula adieraztea eta betetzea garrantzitsua da, konfiantzazko eremu bat eraiki bidean.

Saiatuko gara sistema indartzen duten elementuak kontuan hartzen, adierazten eta arazoan ez geratzen.

Gure begirada konponbidean dago.

Beraz, gure informazioa jasotakoaren arabera egokituko dugu, eta denok ulertu dugula ziurtatuko, helburua elkarlana izanik.

Bilerari bukaera modu egokian emango diogu, eta, beharrezkoa bada, jarraipenerako data jarriko dugu.



Burdin Harana Legazpi - Gipuzkoa

www.lenbur.com
ikerketa@lenbur.com
943 73 18 95 // 943 73 04 28

LENBUR
FUNDAZIOA



Mirandaolako Burdinola martxan!!

*Talde handientzako prezio bereziak.
Nahi izanez gero, ingelesez egin daiteke bisita, gidari natibo batekin.
Olapintxoak dastatzeko aukera dago.*



Argazkia: Joxu Alzola

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziara Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziak jabetuko gara.



Hiru gune

Burdinolan Bilbidea,
XI-XIX mendeen artean:
Azkoni-Aratz parke
Naturaren magalean,
UR-OLA baina jartzen da,
Burdin Haranaren ardatz
nagusia. Bertan elagizonak
eta baserriak bizi izan dira
- Argazkari Edoanuz
- Ogiaren Txerria

Mirandaolako Parkean,
XIX. mendean,
Auzo industrializazioan
murgiduko gara,
Mirandaolako Burdinola
martxan ikusit. Teknologia,
energia, lanbideak eta
besteak beste lantzen
ditugu.
- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

**Langileen Bilbidea, Iraultza
Industrialia,**
Burdinola zaharrik lantegi
bihurtuko dira, elagizonak
langile, eta baserri auzo
langileen etxebizitzak. 1950
urtean murgiduko gara,
frankismo garaiko herri
industrializazio batetan.
- Lantzia
- Bilboko eskola eta etxebizitzak

Egun batzako edo bizpahiru
egunetako egonaldiak.
Egunaldi bazararekin
"B" plana. Milla gutxi
egokitutako taler eta bisitak.
Mirandaolako Parkean,
menderrera, frontoia, haize-
parkea, pista jokoak, eta beste
taude.

ARGITALPENAK



TXOMINTXO ETA PERUTXO MAITEMINDUTA

P. eta T. Magdalena / I. Mitxelena

ELKAR

Perutxok eta Txomintxok jakin nahi dute zer demontre ote den maiteminduta egote hori, hain omen da zoragarria... Neska-mutilak binaka beti elkarrekin ibiltzea esan nahi omen du. Baina zergatik neska eta mutila? Zergatik bi bakarrik? Eta zergatik beti elkarrekin? Ipuin dibertigarria da, aldi berean irakasbide ere izan daitekeena.




HASERRE GORRIA

Mireille d'Allancé / Itzulpena: IKAS

IKAS

Peiok biziki egun txarra iragana du. Ez da umore onean, eta gainera, aitak erasiatu du. Orduan Peiok bere baitan sentitu du gauza ikaragarria gertatzen ari dela, eta gauza horrek makur handia eragin diezaiokeela, aski goiz ez baldin badu geldiarazten. Emozioen adierazpenean laguntzeko haur literaturako liburua da.




MAGNOLIA JAUNA

Quentin Blake / Itzulpena: Eva Linazasoro

PAMIELA-KALANDRAKA

1980an argitaratuta, sari asko jaso dituen liburua da hau. Kontakizun erri-matua egiten du, pertsonaia maitagarri bat ardatz hartuta: Magnolia jauna. Pertsonaia horren gora-behera txoroak kontatzen dira, oin batean falta duen bota aitzakiatzat izanik. Dena aldatuko da, ezustean, Magnolia jaunari pape-rean bildutako oparia iristen zaionean.



TXANTXARIAK EUSKAL JOLASEN BILDUMA 5

Urtxintxa eskola

URTXINTXA ESKOLA GIPUZKOA

Txantxariak herriz herri dabilzan musikariak dira. Musika jotzeaz gain, baina, jolastu ere egiten dute, eta haiengana urreratzen den edonori jolasak irakasten dizkiote. Txantxarien jolas horiek biltzen dira bogarren bilduma honetan. Orotara abesteko eta dantzatzeko 22 jolas eta abesti daude.



BEGIRATU DEZAKET ZURE PIXOIHALEAN?

Guido Van Genechten

TTARTTALO

Xagu jakin-min handiko sagutxoa da. Dena ikertzea eta begiratzea gustatzen zaio. Ikusten dituen zulo guztietan sartzen da, eta dena usnatu behar horretan, lagunaren pixoihaleak ere aztertu eta begiratu nahi izaten ditu. Baina lagunek ere Xaguren pixoihala begiratu nahi dute, eta sekulako ezustekoa hartuko dute!



LUR JOTA

John Kloepfer / Nick Edwards

DESCLÉE

Kevin Brewer-ek taldetxo bat osatu du udalekuetako lagunekin: Lurtar Mundialak. Mim estralurtarra menderatzea lortu zuten taldekideek bere garaian. Orain, Mim gaizkilearen lagun batzuk Lur planetan agertu dira, mendeku bila. Inbaditzaileak garaitzea izango da Lurtar Mundialak taldeko kideen zeregina.

PROPOSAMENA

EUSKARAREN GINKANA

Euskaraz eta euskararekin jolastea xede

Azkue Fundazioak, Ekoguneak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, Euskararen Ginkanaren 5. edizioa egingo da urriaren 17tik abenduaren 3ra bitartean. Internet bidezko 6 proba egingo dira 2016ko abenduaren 3tik 2017ko urtarrilaren 19ra bitartean, gaitzat hizkuntza praktika ekologikoak hartuta. Finala 2017ko urtarrilaren 28an jokatu da Donostiako Kutxa Ekogunean, eta talde garaileak 3.000 euro jasoko ditu euskararen aldeko egitasmo bat finantzatzen erabiltzeko.

Munduko bioaniztasuna babesteko ekintzaile ekologisten lana eta ekintzak ezagunak ditugu, baina munduko hizkuntza aniztasunak ere babesa behar duela barneratu al dugu? Hizkuntzen aldeko ekintzaileak behar ditugu, hizkuntza-ekologistak!". Hala dio Euskararen Ginkanaren 5. edizioko sarrerako testuak. Izan ere, aurtengoan hizkuntza praktika ekologikoak hartu ditu gaitzat lehiaketak.



Alegia, gainditu beharreko probak eta galderak hizkuntzen garapen jasangarirako lagungarri gertatzen diren hitun eta hizkuntza-komunitateen ekimen eta praktikei lotuak izango dira. Hala, Euskararen Ginkanaren lehiaketako probetan, hizkuntza aniztasuna bermatzeko erronka unibertsarari jolasaren bidez heldu zaio.

Ekoguneak euskaraz eta euskararekin dibertitzeko antolatzen duen taldeko lehiaketa da Euskararen Ginkana. 5. edizio honetan, bigarren urtez, Azkue Fundazioaren laguntza izango du antolaketa lanetan eta Euskaltzaleen Topaguneak egingo ditu koordinazio lanak. Helburua da herritarren artean hizkuntzekiko sentiberatasuna eta euskararen erabilpena sustatzea, hizkuntzen zein aniztasunaren jasangarritasuna eta hizkuntza-ekologiaren kontzeptuak ezagutzera emanez. Horretarako,

urteko gai zehatz bat aukeratzen da eta burutu beharreko probak gai horri buruzkoak izaten dira.

Bi fasetan burutzen da Euskararen Ginkana. Lehen fasean, Internet bidezko sei proba erantzun beharko dituzte taldeek. Horietan puntuazioziorik altuena eskuratzen duten lau taldeak pasako dira bigarren fasera, Ekogunean ospatuko den finalera, hain zuzen ere. Bertan proposatzen diren probetan puntu gehien biltzen dituen taldea izango da 5. edizioko irabazlea.

Izena emateko aukera, abenduaren 3ra arte

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, 4-6 laguneko taldeak osatu eta *euskararenginkana.eus* webgunean dagoen galdetegia bete behar da. Abenduaren 3ra arte dago zabalik izena emateko epea. Lehiaketan onartua

izateko, formularioa egoki osatzeaz gain, taldearen aurkezpen-bideoaren esteka itsatsi behar da. Bideoan, taldearen aurkezpena egin behar da batetik; eta bestetik, Ginkana sariarekin finantzatu nahi den euskararen aldeko egitasmoa zein den azaldu behar da, labur-labur, 2 minutu ingurutan. Proiektu edo egitasmo horiek era askotakoak izan daitezke: aurrez martxan daudenak edota aurrera begira burutu nahi direnak. Guztiek, baina, euskararen aldeko ekarpena egin beharko dute, arloa edozein izanik ere: hezkuntza, aisialdia, kulturagintza, helduen euskalduntzea, erabilera sustatzeko egitasmoak... Sarean Euskararen Ginkanaren berri emateagatik puntu gehigarriak lortu ahal izateko, talde lehiakide bakoitzak taldeko twitter-kontua ireki beharko du. Proba bakoitzean zehaztuko da puntu gehigarriak nola lortuko diren eta lehiaketaren amaieran banatuko dira puntu horiek.

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartzea taldekakoa izango da. Talde, elkarte edo eragile bat ordezkatzeko duten 4-6 lagunekoa taldeak osatu beharko dira horretarako. Parte-hartzaile guztiek 2001ean edo lehenago jaiotakoak izan beharko dute. Taldeak egitura formalik gabeko lagun koadrila edo guraso zein ikasle taldeak izan daitezke. Baita egitura formalak duten elkarte desber-


dinetako taldeak ere, hala nola, euskalgintzako taldeak, talde feministak, erakunde sozialak, talde ekologistak, tokiko enpresak, eta abar.

Izen-ematea egoki osatzen duten talde parte-hartzaileek, 2016ko abenduaren 3tik 2017ko urtarrilaren 19a bitartean euskararenginkana.eus webgunean astero argitaratuko diren probak burutu beharko dituzte. Fase horretan proposatuko diren probek ez dute loturirik izango beraien artean. Ez da beharrezkoa proba bat gainditzea hurrengoak egin ahal izateko.

Astero proba bat proposatuko da eta aste beteko epea egongo da erantzunak bidaltzeko. Taldeek burutzen duten proba bakoitzeko puntuak gehituz egingo da finalerako sailkapena.

Webgunean eta sare sozialetan emango da lehiaketaren eta taldeek egin dutenaren berri. Lehen fasea amaitutakoan, puntu gehien bildu dituzten lau taldeak pasako dira finalera. Berdinketa egonez gero, talde horien arteko zozketa egingo da. Lehen faseko probak erantzuteko epea 2017ko urtarrilaren 19an amaituko da.

Finala Donostiako Ekogunean jokatu da 2017ko urtarrilaren 28an eta bertan proposatuko diren probetan puntuazio altuena lortzen duen taldea izango da Euskararen Ginkanaren 5. edizio honetako irabazlea. Irabazleak 3.000 euro jasoko ditu euskararen aldeko egitasmo bat finantzatzeko.



EUSKARAREN GINKANA 2016-2017

IZENA EMATEKO EPEA:

Abenduaren 3ra arte

PARTAIDE KOPURUA:

4-6 pertsonako taldeak

GAIA:

Hizkuntza praktika ekologikoa

FINALA:

Urtarrilaren 28an Donostiako Ekogunean

SARIA:

3.000 euro

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.euskararenginkana.eus



ATZEKO ATETIK



GELARA!

KATTALIN MINER IDAZLEA

Jolas garaia da, sei urte ditut eta ikasgelara hurbildu naiz arnasestuka, amak hamaiketarako prestatu didan mokaduz akordatu naizelako bat-batean. Irakaslea atean da eta alboan dagoen bankuan eseri naiz, oinak zintzilik, *txorizo pamplona* bokata irensten. Gainontzeko ikaskideekin lanpetuta ibili naiz ordura arte, zuhaitz artean sortua dugun txabola atontzen aritu baikara, eta hamaiketakoa bukatu aurretik, hainbat dira nekatuta inguratu diren ikaskideak ere.

Irakasleak galdetu digu: “nekatu al zarete jada?” eta gehienek baietz. “Deituko ditugu gainontzekoak orduan?”, eta aste horretan misio horretarako izendatutako arduradunek eskola inguru guztiak gurutzatuko dituzte “gelaraaa!!!” oihukatzen duten artean.

Batxilergora iritsi arte txirrinaren soinu desatsegina ezagutu ez duen

belaunaldikoa naiz ni; Hernaniko Langile Ikastolan jolas garaiak geuk hasi eta bukatzen genituen irla pedagogiko horretakoa hain zuzen ere. Pupitre indibidualari beldurra geniona, talde-lanean hazi egiten ginela bagenekielako. Testu liburuak oso berandurarte zer ziren ere ez zekiten horietakoa, guk lan-tratoak egiten genituelako, ikasleen artean lehendabizi, irakasleekin ondoren.

Oroitzen dut, lurrian esertzen ginela, borobilean, bakoitzak etxetik ekarritako kuxinetan. Baina oroitzen dut behin, ikaskide batek kontzientzia hartu zuela eta beraz gela osoaren aurrean adierazi, irakaslea aulkibatean esertzen zela. Irakasleari esan zion, modu salatzaile eta mesfidatian, eta hark galdetu zigun ea zer iruditzen zitzaigun hori, zergatik ote zen. Han ikasi genuen hierarkiaren esanahia lehendabizikoz, eta handik aurrera, nahi zuenak aulkia hartu ahal izan zuen eserleku. Parez pare

sentitzeko-edo.

Astero (gehiagotan ez bazen), tarte bat eskaintzen genion taldeari. Honek harekin izandako haserreari, bestea mindu izanari, borrokatu izanari. Eta hor ikasi nuen, kolpeek adina min egin zezaketela hitzek, defendatzea zilegi zela, baina batikbat, denok genuela taldean gertatzen zen ororen ardura.

Gaur egun hala ere, atzera begira jarrita, nahiko utopikoa zait jasotako hezkuntza molde hori, ez dakit ez ote dugun guk geuk ere oroitzen bakoitza azukretu egungo hezkuntza sistemaren gabezien aurka; ez dakit ez ote dugun gure eskolabizipen perfektuekin alternatibarik badagoela frogatu nahi, baina egia dena da, eskola garaiek gordetzen dituzten ohiko traumak ukatu gabe, itzuli egingo nintzatekeela tarteka hara, txabola hartara, txorizo bokata eskuan, gelara itzultzeko gogoia sartu arte.

IV. IDAZLAN LABURREN LEHIAKETA

GURASOEI GUTUNA

Lehiaketa epea:
Irailak 15 - azaroak 10



ttiklik: **ELKARGUNEA**



Beraiei, Juanita Amundarain Otegi,
eta Jon Miren Mendizabal Benitori,
ama ta aitari, bihotzez.

Edozein adinetako idazleak animatu nahi zaituztegu,
gaztetxo zein ez hain gaztetxo, 'gurasoei gutuna'
lemapean beraiei esan nahiko zenizkiekeen hitzak
paperean (ordenagailuan) idaztera.
Idatziak ez du luzea izan behar eta gai hori oinarri hartuta
edozein motako idazlana izan daiteke.

AURKEZTEKO EPEA: AZAROAK 10!
Mila esker, eta animatu parte hartzera!
TTIKLIK! TALDEA

Ikusi OINARRIAK www.ttiklik.com/gurasoei-gutuna

SARI BANAKETA: azaroak 26, Igartza
Jauregian (Beasain) 11:00etatik aurrera
Miriam Luki eta Kirmen Uribe izango
ditugu gonbidatu bereziak
Haurrei zuzendutako ikuskizun berezia
Irrien Lagunaken eskutik,
zozketak eta ondoren LUNCHa.

**SARIAK 4 MAILATAN
BANATUKO DIRA**

0-7 urte / 8-11 urte
12-18 urte / Helduak

(Epaimehaiak: Miriam Luki
eta Kirmen Uribe)

Informazio gehiago: www.ttiklik.com/gurasoei-gutuna



alabe
hitza

kolore kolore



Beasainko irak

SARETH

www.sareth.eu

G:TB

aek

Logo of the organizing institution



PURRITX, PORROTX & MARI MOTOTS

disco-liburu bikoitza!

aurtengo uzta!!

TIPI-TAPA, KORRIKA!



HAIZEAREN HERRIRA



Manolo Urbietaren
Kanta berriak eta zaharrak



AMALUR

DVD bikoitza



* Amalur ikuskizuna

* Zirkua, Irrika... Musika!
Musika ari da
* Erreportajea:
Baserritarra izan nahi dut



Puzlea
20, 30 eta 50
piezako 3 puzle

Euskaraz bilduma:
Kartoizko 4 ipuintxo



Amalur
Plaza Ipuina:
Bilberrako 6. Ipuina

Tipi-Tapa Korrika!
Plaza Ipuina:
Bilberrako 7. Ipuina

